

ASTELEHENEKO Goienkaria

2007ko apirilaren 30a > Astelehena > III. urtea > 143. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Etxeak
oraingoen
antzerakoak
izango dira
etorkizunean,
baina
hobeak"

Alberto Zulueta
Arkitektoa > 06



G2a

Txirri, Mirri eta
Txiribiton Junior,
Arrasaten > 23

HAUTESKUNDEAK

Asteon amaituko dituzte ibarreko
hautes-mahaletako zozketak > 05

ABIADURA HANDIKO TRENA

AHTren lehenengo zatiaren
lizitazio prozesua hasi da > 05

ROCK-AND-ROLL BIKAINA

The Answer taldeak gainezka jarri
zuen Oñatiko gaztelekua > 26



PLURALITASUNA CNTko bandera, ikurrina eta Espainiako II. Errepublikako bandera erakutsi zituzten ekintza guztietan.

JOSETXO ARANTZABAL

OROIMENA > INTXORTAKO ATEA ESKULTURAREN INGURUKO EKINTZAK, ATZO

Bandera desberdinak, batera omenaldian

GERRAKOAK 1936ko gerrako
gudariak, milizianoak eta haien
famiak omendu zituzten Elgetan

EKITALDIAK Orduko abestiak, lore
eskaintza, bertso saioa, bazkaria...
ere egin zituzten batutakoek > 09

ARTZAINZA > ESKOLA

Artzain Eskolak, 10. urteurrena

Egubakoitzean, 10.
ikasturte bukaera
ospatu zuten > 02-03

LANA > LANGILEAREN EGUNA

Sindikatuak, Maiatzaren 1erako gertu

Lau agerraldi egongo
dira; Debagoienean,
ekitaldi bakarra > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05

Elkarrizketa > 06

Iritzia > 08

Herriak > 09-14

Kirola > 15-22

Kultura > 23-27

Sailkatuak > 28

Irrati-Telebista eta

Hitzorduak > 29

Berri-zakua > 30-31

Azkena > 32

Barruan, Eskoriatza Kirol Elkarteko areto futbol sailaren posterra



MENDIA > AED-K ANTOLATUTAKO MENDI MARTXA

'Hiru haundixak hiru egunetan', AEDrekin

Gaur amaituko dute AEDk
antolatutako *Hiru haundixak
hiru egunetan* mendi martxa.
Zapatuan hasi zen 100 kilome-
tro inguruko ibilaldi hori.
Lehenengo, Aizkorri igo zuten
eta, atzo domeka, Anboto.
Otxandion gaua pasa eta gero,
gaur, hirugarren eta azkene-
ko etapari ekingo diote. Elkar-
tutako 39 mendizaleek Gor-
beia igo beharko dute gaur.
Gero, bukatzeko, autobusean
Arrasatera eramango dituzte
parte-hartzaile guztiak. > 19



GATZAGA Zapatuan, Gatzagan egin zuten 10 mendizaleek.

JOSETXO ARANTZABAL

ABELTZAINZA > OÑATIKO ARTZAIN ESKOLAK, HAMAR URTE

Artzainak, eskolatik lurrera artaldean zaintzera

HAMAR IKASLE Azken ikasturtean, hamar ikasle izan dira Gomistegiko Artzain Eskolan; batez beste, 14 lagun izaten da kurtso bakoitzean

PRAKTIKAK Eskolan zortzi astez teoria ikasi ostean, artzainen baserrietan barrutik ezagutzen dute ikasleek artzaintza lanbide moduan

INSTALAZIOAK Datorren ikasturterako, gaztandegia eta ardiendako gordeleku berria izango dituzte eskolan, teknologiarik berrienekin jantzita

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Artzain eta zakur iaioak, ardi ondoan jaiok dio esaera zaharrak, baina, ardi artean jaio ez arren, artzain lanbidea ikas daitekeela erakutsi dute Oñatin. Izan ere, orain dela hamar urte ipini zuten abian, Arantzazuko Gomistegi baserrian, Artzain Eskola, eta ibilbide luzearen ostean eman ditu fruituak hainbat lagun lanak.

Egubakoitzean egin zuten Arantzazun Artzain Eskolako hamargarren ikasturtearen amaiera ekitaldia. Eskola teorikoa eta laborategi, kudeaketa zentro, nekazaritza eskoletara... egingako bisitak uztartu dituzte sei hilabeteko ikastaroaren lehenengo zatian, eta Gomistegi baserriko artaldea ere zaindu dute. Artzaintzarekin lotura handia duten arlo ugari jorratu dituzte: artaldearen zaintza, elikadura, gaixotasunak, genetika, gaztagintza eta produktuak merkaturatzea, besteak beste. Horretaz gain,

lotura zuzenik ez izan arren, profesionalak gertatzeko beste gai batzuk ere landu dituzte: autoestimua, talde lana, kalitatea...

Teoriako zortzi asteren ondoren, 14 astez, ikasitakoa praktikan ipintzeko eta artzaintza barrutik ezagutzeko aukera izan dute, artzainen baserrietan.

ORAINGO IKASLEEN ETORKIZUNA

Hamar lagunek jardun dute aurturtean eskolan eta, ikasturtea amaituta, datozen hiru urteetan, ikasleentako bik sektoreko lana probatzeko eta zailtasunen berri jakiteko inbertsio txikiak egingo dituzte; beste hiruk, handiak, instalazioak egokitzeko. Gainera, hiru ikasleek laguntzak jasoko dituzte Foru Aldundietatik, ikasten jarraitzeko. Gainontzeko bostek ez dute garbi epe laburrean zer egingo duten.

Batis Otaegi Artzain Eskolako zuzendariak esan digunez, "ikasleak oso pozik azaldu dira ikasitakoarekin. Hartu dute orienta-

Eskolaren hamar urteak, datutan

IKASLE KOPURUA

Araba	19
Gipuzkoa	57
Bizkaia	26
Espainiako autonomia erkidegoak	19
Atzerrikoak	20
Guztira	141

IKASLEEN SEXUA

Gizonezkoak	107	%76
Emakumeak	34	%24

IKASLEEN ADINA

< 20	27
21-31	79
31-40	26
40 <	9

zio orokorra, agian, etorkizunean, batzuk artzain izateko. Hiru edo lau, etorri zirenean, ari ziren jadanik ardiekin lanean, eta argi dute itzulitakoan jarraituko dutela".

GEHIENGOA, GIPUZKOARRA

Hori, azken ikasturteari dagokionez; baina, hamar urteotan, 141 ikasle pasa dira eskolatik. Gipuzkoarrak ziren gehienak, 57; eta, EAEn ikasleez gain, beste autonomia erkidegotakoak -kataluniarrak, asko- zein atzerrikoak -Txile, Argentina eta Kolonbia, esaterako- ere izan dira gurean.

Gizonezkoak izan dira gehienago, %76; baina aipatzekoa da emakumeen kopurua ere ez dela nolanhikoa: hamar urteotan, 34 pasa dira, %24.

Adinari dagokionez, 27 urtekoa da batez bestekoa, nahiz eta, azken urteotan, jaitsi egin den. Beraz, laguntzak emateko orduan, kontuan hartzen du administrazioak abeltzain gazteen jarduna.

Eskolak eta beste erakunde zein norbanakoez elkarlanean lortu dute urteotan 72 artzain egonkortzea sektorean.

HASIERAKO ZALANTZAK

Hamar urte pasa dira, ekitaldian Gonzalo Saenz de Samaniego Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak esan zuen moduan, "zoro" batzuek Artzain Eskolaren proiektua abian jarri zutenetik.

"Hasi ginenean, ez genekien proiektuak iraungo zuen ala ez. Baina, urtero, 13-15 ikasle etortzen dira, bai Euskal Herritik eta baita kanpotik ere, eta etorkizunean ere uste dugu etorriko direla batzuk, geroz eta hobeto prestatuak gaudelako. Kuantitatiboki, artzain kopurua gutxitu egin da, baina kualitatiboki, artzainak gero eta prestatuagoak daude. Ikusi besterik ez dago zenbat eta zein mailako sariak jasotzen ari diren gaztarekin. Beraz, ez dugu zalan-



Jaione Gongora eta Xanti Urkiola
Aurtengo ikasleak



Jose Ramon Martinez
Ikasle ohia eta Agiñigako artzaina



Pedro Gabiria
Etxean artzain ikasleak hartzen dituen artzaina

Almeriatik etorri zen Gomistegira Jaione Gongora ikasturte hasieran, eta ekarri zituen asmoak bete direla azaldu zuen Arantzazuko ekitaldian. "Eskerrak eman nahi dizkiogu gurekin eta guretzat lan egin dutenei: eskolako jendea, irakasleak, artzainak... Azken hauek euren etxeko atekazabaldur eta pazientziak erakutsi digute artzain langintza. Esperientzia aberasgarria izan da, pertsonalki eta profesionalki. Administrazioari esan nahi genioke lurra beste modu batean banatu

beharkolizuzkeela, eta gehiago lagundu beharko liguketela abeltzainoi".

ETXEAN, ARTALDEA

Xanti Urkiola artzain baten semea da eta etxean du artaldea. "Artaldearekin esperientzia duenak eskolan ikasi ditzake artzaintza egiteko modu ezberdinak. Lehendik ardiekin esperientzia duenak gauza berriak ikasteko modua du; eta sekula ardiekin ibili ez denari, bestalde, horrelako ikasturte bat beharrezkoa zaio", esan zuen.

Artzain eskolan 2001-2002 ikasturtean izan zen emaztearekin Jose Ramon Martinez, eta, gaur egun, artzaintzatik bizi da. "Ia zertara gertozen ere ez genekiela etorri ginen. Hasieran pentsatu nuen: "Zer berririk erakutsiko diote teknikariek ardi artean jaio eta bizi izan den bati?" Bada, konturatu nintzen banekiela ardiei jaten ematen, lurrera eramaten, jezten... baina arraza hobetzen ikasi genuen beste metodo batzuen bidez, eta orain daukaguna izatera ailegatu gara".

ARTZAINZA ETA GAZTA

Irakasle onen eskolak jaso eta, artzainei entzun ostean, instalazio egokiak ipini zituen, eta gazta ere egiten du gaur egun. "Hemen entzun dugu artzaintzatik bizi daitekeela, eta badira ardiendak bizi direnak, asko: albatariak, laborategiak, pentsu fabrikak, administrazioa... eta hala ere, guretzat diru apur bat geratzen denean, gustura", esan zuen.

Artzain berriei animua emateko eta ikasleak hartzen dituzten artzainei pazientzia eskatzeko aprobetxatu zuen.

Legazpiko artzain honek dagokieneko bost ikasle izan ditu etxean eta aurtengo kanpainakoarekin geratu da gusturen. "Denetariko ikasleak izan ditugu gurean, eta bakoitzaren gogoaren arabera izaten da lan jarduna. Hala ere, ikasleek egiten dituzte guk baserrian egiten ditugun lan guztiak. Hasieran, martxa hartu artean, lagundu egiten digute, baina, ikasturtea aurrera joan eran, gure mailan jartzen dira, bai ardiak jezten, bai gazta egiten...", esan digu Pedro Gabiriak.

Artzain eskola beharrezkotzat jotzen du: "Lehengobidetik, artzaintzak ezin zezakeen segi; eskerrak modernizatu den", dio.

MODERNIZATU

"Orain dela 15 urte, pabiloia jarrai nuen, dena automatizatu, eta 300 ardioko artaldea emazteak eta biok gobernatzeko dugu. Laguntza izaten dugu eskolako ikasleena. Hala ere, aurtengo kanpaina bukatzeko bi hilabete falta zaizkigu, eta, eskolakoen ikasturtea amaitu denez, laguntzarik gabegau".



IKASTURTE AMAIERA Aurten Artzain Eskolan jardun duten hamar ikasleak, omendutako artzain Juan Padilla eta honen emaztearekin, eta Nikolas Segurola eta Batis Otaegi eskolako arduradunekin.

I.A.

tzarik guretik pasatzen diren artzainek etorkizuna bermatuko dutela", diosku Batis Otaegik.

Lehen ikasturtetik, ordea, lantaldea sendotu egin da. Hala ere, oinarriak bere horretan diraute la adierazi zuen Otaegik: "Bertako arrazen alde egiten dugu; gure jarduna produkzio arduratsuan eta animaliekiko errespetuan oinarrituta dago; produktu seguruak egiten erakusten diegu ikasleei; eta artzaintzaren garrantzia gizarteratzen ere saiatzen gara".

Lander Arregi Itsasmendikoi-ko zuzendari kudeatzaileak ere esan zuen, hasieran, inork ez zuela uste eskolak horrelako arrakasta izango zutenik: "Proiektua elkarlanaren fruitua izan zen sorreran, eta bilakaera ere horri eskerrak gauzatu da. Artzaintzaren sektoretik bertatik ateratzen diren eskolaren ideia. Askotan, proiektuak goitik datozenean, arazoak gehiago izaten dira, asmoa sektoretik bertatik datorrenean baino. Etorkizunera begira, zalantza asko zituen sektore izatetik, etorkizuna garbi ikustera pasa da artzaintza".

AGINTARIEN BABESA

Artzaintza sektoreak bere horretan beharbada ez luke horrelako aurrera pausorik emango, erakundearen babesik ezean. Egubakotzeko ospakizunean izan ziren, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiko Rafael Uribarren eta Eusko Jaurlaritzako Gonzalo Saenz de Samaniego.

Foru Aldundiko Landa Ingu-runearen Garapenerako diputatu Rafael Uribarrenek esan zuen orain dela hamar urte emandako babes berretsiko dutela, besteak beste, instalazio berriak jartzeko laguntza emanez. Gaineratu zuen, "artzaintza bizirik mantentzeko eta belaunaldi berriak etortzeko ahaleginean bat egiten dugu esko-

larekin. Espero dut artzain hauek munduan barrera joaten direnean, euren produktuekin gure enbaxadore egokiak izango direla. Bestalde, lehengo artzainek zeresan handia izan zuten inguruko parajeak mantentzeko, eta gure ondorengoei ere horrela edo modu hobean lagatzeko lur hauek, artzainak zarete funtsezko pieza".

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburu Gonzalo Saenz de Samaniegok ere bat egin zuen etorkizunera begira jartzean: "Artzaintza orain dela 10 urte sektore klabea bazen, orain ere hala da, eta gero ere izango da. Lortu duzue artzaintzari jendeak eta sektoreak berak modu baikorrean begiratzea. Instalazioak zahartu dira urteotan, eta, berriro behar horretan, gure laguntza emango dugu beste batzuekin batera, lanbide zaharra ahalik eta teknika eta baliabide aurrerakoienekin uztartuz".

"Artzain kopurua gutxitu egin da, baina hobeto prestatuak daude"

"Sektorean zalantza asko izatetik, etorkizuna garbi ikustera pasa da artzaintza"

BERRIKUNTZAK ESKOLAN

Urteen joanak gerora begira ipini ditu Artzain Eskolako arduradunak ere. Datorren irailerako inauguratu nahi dituzte Gomistegi baserriko instalazio berriak. Baserri zaharra teknologiarik berrienarekin jantziko dute eta, besteak beste, gaztandegia eta ardiendako gordeleku berria ere izango dituzte. Horrela, etengabeko hezkuntzan erreferente izan nahi du Artzain Eskolak.

Lander Arregiren esanetan, "Artzain Eskola hezkuntza erakunde gisa sendotu egingo da, baina horrek ez du esan nahi sektorearekiko kontaktua galduko duenik, hori baita eskolaren ardatza. Ezinbesteko da eskolaren eta artzainen arteko komunikazioa".

Datorren ikasturterako, beste berrikuntza eta asmoen gaineko azalpenak ere eman dizkigu Batis Otaegik: "Berrikuntza nagusia izango da Artzain Eskola bera

berria izango dugula; eta instalazio produktiboak ere berriak izango dira. Horretaz gain, Iparraldeko artzainekin eta bertako eskolekin harremanak estutzen ari gara; beraz, hango material pedagogiko eta didaktikoak erabiliko ditugu. Azken finean, etengabeko heziketan, etengabeko hobekuntza ezinbestekoa da".

Artzain Eskolako Nikolas Segurolak bertso batean laburbildu zuen eskolaren hamar urteko ibilbidea. Esan zuen Artzain Eskola dela "hamar urteko familia jatorra eta zabala", eta denei, ikasle, artzain eta irakasleei, batik bat, eskaini nahi diela bere magala.

Hamar urte ez dira alperrik igaro, eta aurrerantzean ere, artzaintza ikasleko gertu dauden ikasleek Gomistegira joko dute. Izan ere, ardi bat doan tokitik denak doazela dio esaerak, eta artzain izan nahi duenak badaki gurean nora jo.

Juan Padilla, 83 urte betetzear, gaztagintzan jarduten duen artzain beterano bizkaitarra

Hamar urteko jardunak bat eta beste eskertzeko bidea eman du eta, eskolako kide Nikolas Segurolak esan zuen moduan, "proiektu honen bueltan aritu garenok elkarri eman beharko genizkioke eskerrak, hamar urte luze-etako bidean elkarlanean jardun dugulako".

Baina esker berezia merezi dute garai batean artzaintzan jardun eta gaur egungo bizimodura eta lan egiteko erara egokitzen jakin duten artzainek. Hori dela eta, urtero omentzen dute artzainen bat Artzain Eskolakoek. Aurten, txapela eta makila jaso zituen Juan Padillak, eta lore sorta, bere emazteak.

OTXANDION ARTZAIN

83 urte beteko ditu, eta oraindik emazteak eta biek semeari laguntzen jarduten dute gaztagintzan. Pozik jaso zuen omenaldia bizkaitarrak, eta artzain gazteei gonbitea egin zien eurenera joateko. Bestalde, Padillak garai bateko eta oraingo artzaintzaz jardun zuen: "Orain, ondo bizi gara artzainok, behin kortak-eta egokituta. Gaur egun, urtariletik ekainera bitartean, etxean izaten ditugu ardiak; lehen esklaboagoa zen artzainon lana, gogorragoa", esan zuen.



I.A.

LANA > MAIATZAREN 1A

Euren aldarrikapenak egingo dituzte sindikatu guztiek maiatzaren 1ean

Sindikatu gehienek hiriburuak aukeratu dituzte maiatzaren 1eko agerraldiak egiteko

Langileen harrotasuna, autodeterminazioa, egonkortasuna eta berdintasuna, leloetan nabarmenduta

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Sindikatuak gertu daude Nazioarteko Langilearen Eguna ospatzeko bihar, martitzena, maiatzak 1. Debagoienean, ekitaldi bakarra izango da, LABena, hain zuzen ere.

HIRIBURUETAN ETA ARRASATEN

Sindikatu gehienek hiriburuetara joko dute. Hala, adibidez, ELAk Bilbora deitu ditu bere jarraitzaileak. Deba arro osotik bederatzi autobus joango dira, eta Euskal Herriko 8.000-9.000 ordezkari bitartean batuko direla aurreikusten dute sindikatuko arduradunek. 11:45 aldera, agerraldia egingo dute Jesusen Bihotzetik abiatuta, *Maiatzak 1, langileak garelako* leloarekin, eta BECen bazkalduko dute segidan.

LAB sindikatuak eskualdeko antolatu ditu hainbat ekitaldi. Hala, Debagoieneko eta Debabarreneko ordezkariak Arrasaten batuko dira, *Autodeterminazioaz aldaketa garaia, Euskal Herri gorrira* leloarekin.

Seber Altube plazan batuko dira 12:30 inguruan, eta kale age-

rraldia egingo dute lehenengo; segidan, ekitaldia, sindikatuko arduradunen eskutik; eta, bukatzeko, batera bazkalduko dute ordezkariak eta jarraitzaileak. "Iaz, Eibarren, 500 lagunetik gora

Lan istripu eta heriotzak salatzen elkarretaratzea

Lanean osasuna eta segurtasuna ziurtatzeko eskatzeko, ordu beteko lanuztea deitu zuen LABek apirilaren 28ko bezperan. Debagoienean ere hala egin zuten, eta denetarik erantzuna izan zuen. LABek bakarka egin zuen deialdia, eta, eskualdeko arduradun Jon Garateren esanetan, helburua zen "patronalari eta administrazioari eskatzea ahalegin handiagoa egin dezatela lan istripuak saihesteko, aurreko iazko bide beretik goazeta". Besteak beste, Herriko plazan eta Fagor Arrasaten enkatelada egin zuten eguerdian.

batu ginen, eta aurren, antzeko kopurua espero dugu Arrasaten. Eguraldiak, zubia egoteak... zelan eragingo duten ikusi behar", dio LABeko eskualdeko arduradun Jon Garatek.

Bilbon ere, eta Iruñean baita, agertuko dira ESK sindikatuko kide eta jarraitzaileak. Debagoieneko Bilbora joko dute, eta eguerdian kale agerraldia egingo dute, *Mozkin ziurrei, enplegu prekarioa* leloarekin. Kale Nagusian hasiko dira. Guretik joateko autobusi ez dute antolatu, baina norbera autoz joateko dei egiten dute.

Azkenik, CCOO eta UGT sindikatuak batera agertuko dira, Donostian. *Egunero, langileria-*

ren eguna lelo bateratua aukeratu dute. Beste lelo batzuk ere badituzte; besteak beste, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eskatuko dute, eta 1.000 euroko gutxieneko soldata ere. Debagoienetik batera joango dira autobusean; egubakoitzean, 70 lagun zeuden izena emanda.

APIRILAREN 28AN ERE, EKINTZAK

Bestalde, apirilaren 28a, zapatua, Lan Osasun eta Segurtasunaren Eguna da, eta horixe gogorarazi zuten hainbat sindikatuk bezperan, egubakoitzean. Hala, ELA, ESK eta STEE-EILAS sindikatuek agerraldia egin zuten Bilbon, eta LABek lanuzteak deitu zituen.

LAN OSASUN ETA SEGURTASUNAREN EGUNA



LABek deitutako elkarretaratzea egubakoitzean Arrasaten.

GOITB

ERAIKUNTZA > EUSKADIKO BIRGAITZE ELKARTEEN TOPAKETA

Eraginkortasun energetikoaz eta birgaitzeaz jardunaldiak

Suradesa elkarteak gonbidatuta, Euskadiko birgaitze elkarteek topaketa egingo dute egunean, maiatzak 3, Arantzazun

L.K. > ARRASATE

Energia eta iraunkortasuna eraikuntza sektorearen arduraga nagusi bilakatu dira. Hori kontuan hartuta, Suradesa hiri birgaitze erakundeak topaketa interesgarri batzuk antolatu ditu eguneko hilak 3. Hain zuzen, Euskadiko Birgaitze Elkarteek topaketa egingo dute Oñatin, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Suradesa elkarte bera ere ordezkaturik egongo da, Luis Laskurain bergararra, elkartearen gerentea, izango da eta hizlari nabarmenetako bat. Jardunaldiotan, eraginkortasun energetikoa eta birgaitzearen gaiaz hitz egingo dute.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUA

Topaketak 10:00etan hasiko dira. Ongietorriaren eta aurkezpenaren ostean, Koldo Azkoitiak, Lurralde Antolaketa eta Sustape-


nerako Foru diputatuak, hogei minutu inguruko hitzaldia egingo du. Haren ostean, 10:30 inguruan, izango da Luis Laskurainen txanda. Atsedendia labor baten ondoren, Ulma taldeak etxebizitzak isolatzeko tekniken inguruko konponbide berritzaileen gainean hitz egingo du.

Eguerdian, mahai-ingurua egingo dute, eta, 12:45ean, amaiera ekitaldia; segidan, Arantzazuko Santutegira bisita gidatua egingo dute, eta, bukatzeko, batera bazkalduko dute.

Batik bat, herrietako teknikariei eta arkitektoei daude zuzenduta topaketok.

HOGEGARREN URTEURRENA

Debagoieneko birgaitze erakunde hori 20. urteurrena ospatzen dabil aurren, eta horren barne antolatutako ekintza ere bada egun bakarreko jardunaldi hori.



Luis Laskurain.

GOIENKARIA

Hain zuzen, gonbidatu azpimarragarri bat Jose Luis Azkarate izango da, Suradesako gerente izandakoa Laskurainen aurretik, eta gaur egun LKSk Gasteizen daukan egoitzan lan egiten duena. Bere esanetan, jardunaldiotan, besteak beste, ikusi ahal izango da "Suradesak 20 urteotan birgaitzean egindako lana, hasieran erronka handia zeukan-eta".

> HEZKUNTZA

Mondragon Unibertsitateko Informatika Ingeniaritzako ikasleek enpresei dei egiten diete

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Goi Mailako Informatika Ingeniaritzako azken ikasturteko ikasleek enpresendako jardunaldi batzuk antolatu nahi dituzte. Izan ere, hainbat enpresak urtero eskolari ikasleekin kontaktua izateko eskaerak egiten dizkiote, eta interesa erakutsi duten enpresei parte hartzeko aukera eskaini nahi diete. Hala, parte hartu nahi dutenek honako helbidera idatzi behar dute: naroyalortza@gmail.com.

> ZERO POBREZIA

Hezkuntza eta herri txiroendako teknologiarako eskubidea eskatuko ditu Zero Pobrezia taldeak

Arrasateko Zero Pobrezia plataformak datozen hilabeteotarako ekintzen berri eman du.

Hala, maiatzean, hezkuntza eskubidea eta herri txirotuendako teknologiarako eskubidea gogoraraziko dute. Hil horretan, 26an, egingo dute Elkartasun Eguna. Ekainean, ingurumenarekiko garapen arduratsua eskatuko dute; uztailean, milurtekoaren helburuak betetzeko konpromisoan erdibidea.

> EUSKAL TRADIZIOAK

Euskal erromeriak bultzatzeko, 'Munibe plazara dantzara!' programa hasiko da egubakoitzean

Bergaran, erromeriak berreskuratzeko *Munibe plazara dantzara!* programa antolatu dute Xamatx, Abarka eta Moises Azpiazu dantza taldeek, Trikitixa eskolak eta Udalak. Maiatzaren 4an, Jon Ostolazak eta Rakel Pujanak girotutako erromeria izango da; hilaren 11n, Koldo Iparragirrek joko du; eta 18an, erromeriak, dantza ikuskizunak eta afaria izango dira; horretarako txartelak salgai daude kultura etxean eta Kortazarren, 8 eurotan.

HAUTESKUNDEAK 07

Hautes-mahaietako lehen zozketak zapatuan egin zituzten

Elgetako eta Oñatiko Udalek zapatu eguerdian egin zituzten zozketak, osoko bilkuran

Elgetan, bederatzi kide aukeratu zituzten, mahai bakarretako; eta Oñatin, 144, 16 mahaitan egoteko

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Maiatzaren 27ko hauteskundetako mahaietako zozketetako bi egin dituzte dagoeneko Debagoienan. Herenegun egin zituzten zozketak Elgetako eta Oñatiko Udalek, osoko bilkuran. Mahai bakoitzerako, bederatzi lagun aukeratu behar dira: presidentea eta bi bokal, eta postu bakoitzerako bi ordeko. Elgetan, mahai bakarretako kideak aukeratu zituzten. Oñatin, 16 hautes-mahai ipiniko dituzte; ondorioz, 144 postu.

Elgetako osokoa egiten ari ziren bitartean, Abertzale Sozialistek kontzentrazioa egin zuten plazan, "hauteskunde demokratiakoak" eskatzeko.

Oraingo astean, mahaietan egon behar duten herritar bakoitzari modu pertsonalean jakina-



ELGETA Zapatu eguerdian egin zuten osoko bilkura Elgetan, hautes-mahaien konposaketa erabakitzeko.

JOSETXO ARANTZABAL

raziko diote bere betebeharrak. Normalena izaten da udaltzain batek eramatea jakinarazpena.

APELAZIOA

Aukeratutakoek apelazioa aurkez dezakete Bergaran, Hauteskunde Batzordearen aurrean, eta zazpi egun dute horretarako. Erakunde horrek herritarren arazoak baloratuko ditu eta behin betiko erabakia jakinaraziko du.

Gainerako zozketak, gaur eta etzi

Gutzira, 765 lagun egon beharko dira Debagoieneko 85 hautes-mahaitan. Segidan, herri bakoitzean noiz egingo duten zozketa, eta zenbat kide aukeratu dituzten: gaur, astelehena, Arrasaten -297 kide, 33 mahai-, Bergaran -171 kide, 19 mahai-, eta Antzuolan -18 kide, bi mahai-; etzi, eguaztena, Aramaion egingo dute zozketa -18 lagun, bi mahai-, baita Eskoriatzan ere -36 kide, lau mahaitan banatuta- Aretxabaletan -63 lagun, zazpi mahaitan-; eta Leintz Gatzagan -bederatzi lagun, mahai bakarretan egoteko.

HAUTESKUNDEAK 07

EAE ez du bertan behera utzi Garzonek

Bestalde, ASBren zerrenden kontra egitekoa da Fiskaltza egunotan

A.G. > BERGARA

Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdiaren jarduna ez etetea erabaki zuen Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak herenegun, zapatua, "ETA-Batasunarekin inongo loturarik ez duelako", epaiak jasotzen duen moduan. Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak txosten bateratua aurkeztu zioten epaileari, eta hori begiratu ondoren hartu zuen Garzonek erabakia. Aurreko egunetan, Espainiako Gobernuak eta PSE alderdiak erakutsitako iritziarekin bat egin du, beraz, Auzitegi Nazionaleko epaileak.

ASB-REN ZERRENDAK

Beste alderdi baten, Abertzale Sozialisten Batasunaren, etorkizuna oraindik ez dago argi, ordea. Izan ere, Espainiako Fiskaltzak ASBren zerrenden aurka egingo duela jakinarazi du, eta hori egiteko egunak eguaztena eta eguena, maiatzak 2 eta 3, dira. Beranduen, maiatzaren 11n jakingo da ASB lege barruan uzten duten ala ez.

AZPIEGITURAK > AHT

AHTren lehen zatiaren lizitazioa aurrera doala dio Garraio sailburuak

Ordizia-Itsasondo tarteko plataforma eraikitzeke lizitazio prozesua hasi da

Herenegun, milaka lagunek gaitzestu egin zuten berriro AHT, agerraldian, Bilbon

L.K. > BERGARA

Abiadura Handiko Treneko Ordizia-Itsasondo tarteko plataforma eraikitzeke lizitazio-prozesua hasi da; hala esan zuen joan den astean Nuria Lopez de Gereñu Garraio eta Herri Lan sailburuak.

Ordizia-Itsasondo Gipuzkoan, Eusko Jaurlaritzaren ardurapeko tartean, martxan jartzen den lehenengo lizitazioa da. Tulean doan 2,8 kilometrotako trenbidea da, eta 50 milioi euro -BEZ gabe- kostatuko dela aurreikusuten du Jaurlaritzak.

Informazio hori joan den eguaztenean eman zuen Lopez de Gereñuk, Legebiltzarreko batzordearen aurreko agerraldian.

GELTOKIA, EZKIO-ITSASON

Ezkio-Itsason, bidaiariendako geltoki bat izango dela ere baieztatu zuen Lopez de Gereñuk; Jaurlaritzaren esanetan, geltoki hori "oso egokia da Gipuzkoako zati garrantzitsu batentzat", eta, asmoak aldatu ezean, hura izango da Debagoienetik geltoki gertuena. "Nafarroa eta Mediterraneo lineari iristen denean, lotura hori egiteko asmoa dago", zehazten du Garraio sailak.

Garraio sailaren esanetan, 2007ko lehenengo hilabeteetan, lehendik zegoen informazioa aztertzen ibili dira, Sustapen Ministerioarekin batera lankidetzako proiektuak berrikusten, eta

trenak zeharkatuko dituen herrietako udalekin batera proiektuak -zabortegiak, kamioien joan-etorriak...- aztertzen, besteak beste.

AGERRALDIRA JOATEKO ARAZOAK

Agerraldi horretatik egun gutxira, herenegun, zapatua, hain zuzen, AHTren aurkako agerraldia egin zuten milaka lagunek Bilbon; tartean, Debagoienetik bi autobus bete, eta beste lagun asko autoz, batez ere Aretxabaletatik eta Eskoriatzatik, autobusak dagoeneko beteta zeudelako.

Arazoak izan zituzten, Guardia Zibilak kontrolak jarri zituelako Zarautzen eta Durangon; bigarren horretan, geldituta egon ziren Debagoieneko autobusak, beste batzuen artean. "Txarrena da jende asko umeekin joaten dela, AHT etorkizuneko arazoa ere badelako, eta, kontrolekin eta, beldurtu egiten dira hurrengo baten etortzeko", salatzen du Elkarlaneko Mila Elortza bergararrak. Debagoiendarrez gain, beste lagun asko ere geldiarazita egon ziren, tartean, Nafarroatik eta Donostialdetik zihoazen lau autobus.

Horren guztiaren ondorioz, agerraldia ia ordu erdi berandu hasi zen, 17:55ean, baina, arazok arazo, milaka lagun batu ziren AHT gelditu orain! lelopean Jesusen Bihotza plazan. Mila Elortzak iritzi ona agertzen du herritarren erantzunarekin: "Zubia zetorrela-eta, beldur pixka bat bagenuen, baina, azkenean, jende asko etorri zen; eta gogo handiarekin, gainera".

LANAK GELDITZEKO ESKATU

Elortza bera izan zen agerraldi bukaeran hitza hartu zutenetako bat, Elkarlaneko beste kide batekin. Kontrolak gogor salatu zituen, eta AHTren aurkako herritarren gaitzespena "ezkutatzeke" saiakera izan zirela esan zuen. Agerraldia Bilboko udaltxera iritsi zenean, "AHTk eragingo litzukeen kalte ekologiko, ekonomiko, sozial eta kultural ikaragarriak" gogorarazi zituzten, eta "Euskal Herriaren eta euskal herritarren etorkizuna baldintzatuko lukeen egitasmo antiekologikoa eta antisoziala geratzeko" eskatu zieten Euskadiko eta Nafarroako Gobernuari, eta Espainia eta Frantziari ere.

Eraikuntza sektoreak erronka berriei aurre egin beharko die XXI. mendean; nagusia izango da ingurumena errespetatzea eta zaintzea. Arizmendi ikastolan, eraikuntzako teknikari espezializatuak prestatzen dituzte, Lanbide Heziketan. Hori dela eta, jardunaldiak antolatu dituzte, eraikuntzako profesionali garapen jasangarriaren gaineko azalpenak emateko, besteak beste.

Alberto Zulueta > Donostiako Arkitektura Eskolako zuzendaria

"Etxeak, itxuraz, oraingoen antzerakoak izango dira baina, kalitatez, hobeak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Gipuzkoako Arkitektoen Elkargoko Eraikuntza Kodigo Teknikoaren jarraipenerako aditu taldeko partaidea da Alberto Zulueta. Jardunaldietan, kodea bera izan du hizketarako gai; Europako Batasunaren eskakizun teknikoak betetzeko dokumentua, alegia.

Nolakoak izango da XXI. mendeko etxebizitza?

Nik dakidana da nolakoak izan behar diren etorkizunean arkitektoak, baina etxebizitzak ez dakit nolakoak izango diren. Arkitektoak, beraz, profesional teknikoak izan beharko dira, ondo ikasitakoak

Eraikuntza Kode Teknikoak zein aldaketa nagusi ekarriko ditu eraikuntza sektorean?

Kodeak batzen ditu eraikuntzarako erabiltzen diren arau guztiak. Arau batzuekin, zantzak dauzkagu, ondo ala gaizki eginda ote dauden. Esaterako, kodearen azken puntua erabiltzaileari dagokio, eta gerta liteke erabiltzaileek instalazio berri horiek guztiak ixtea, oso garestiak direlako. Hortaz, lan handia egin beharko da, jendea kontzientziazteko. Dena dela, kode horren arabera, eraikinen kalitatea handiagoa izango da, eta etxebizitzetan instalazio gehiago izango ditugu: telekomunikazioa, domotika...

Domotikak, beraz, izango du zeresanik etorkizuneko etxebizitzetan, ezta?

Domotika luxutzat daukagu gaur egun, merkatuko abantailatzat. Baina, aurrerantzean, puntu garrantzitsua izango da etxebizitzetan, besteak beste, adinekoak zaintzeko. Izan ere, domotikak segurtasuna bermatuko luke, batetik; bestetik, energiaren kudeaketa egiteko, sentsoreen bitartez, puntu bakarretik dena kontrolatzeko aukera ematen du; komunikazioa ere bertatik egin daiteke. Hau da, etxean sare inteligente bat sartzeak aukera emango liguke galdarak, argia eta bestelako etxeko tresna elektrikoak erabiltzeko.

Zein material erabili behar dira ingurumenari kalte gutxiago eragiteko?

Materialei dagokienez, ez da aldaketa askorik izango. Aldaketa handiena etorriko da energia arloan, energia berriztagarriak erabiltzetik, alegia. Gasa eta gaso-



Alberto Zuluetak Eraikuntza Kode Teknikoa izan zuen hizpide Arrasateko jardunaldietan.

I.A.

lioaren erabilera jaitsi edo kendu eta, horien orde, biomasa, eguzki energia, eolikoa... erabili beharko dira.

Energia aurrezteko neurriak hartzen ari gara, pixkanaka?

Oraindik bidea luzea da, baina, pausoka-pausoka, aurrera joango gara. Euskal Autonomia Erkidegoan, Energiaren Euskal Erakundea eta energia ziurtagiriak ematen dituen CADEM zentroa aitzindariak dira, eta hainbat pauso eman dituzte dagoeneko. Esaterako, hemendik aurrera, eraikinen energia ziurtagiriak derrigorrezkoak izango dira, baina EAEn, orain lau edo bost urte borondatez ekin genion ziurtagiriak emateko esperientzia horri.

Itxurari dagokionez aldaketa handirik sumatuko dugu etxebizitzetan?

Horretan, ez dugu ikusiko aldaketa askorik, ez bada eguz-

DOMOTIKA
"Domotika luxutzat daukagu baina, etorkizunean, garrantzitsua izango da"

ENERGIA
"Gasa eta gasolioa erabili orde, biomasa, eguzki energia, eolikoa... erabili behar dira"

PREZIOA
"Etxebizitzaren prezioaren igoera %8 eta %10 bitartekoa izango dela aurreikusten da"

ki plakek teiltuen itxura aldatuko dutela. Gainontzeko guztia oraingoaren oso antzerakoa izango da. Kalitate handiagoa egongo da eraikinetan, hori bai; batez ere, egituren segurtasunari eta materialen kalitateari dagokie. Ziurtagiriak aurkeztea derri gorrezkoa izango denez, horrek eragina izango du kalitatean.

Nolako etxeko tresna elektrikoak ikusiko ditugu aurrerantzean, etxebizitzetan?

Jardunaldietan, Ikerlanekoek azaldu zuten erregai-pilaren erabilera nolakoak izango den etorkizuneko etxebizitzetako tresna elektrikoetan. Erregai pilak balioko luke berotasuna, elektrizitatea... lortzeko. Horrela, elementu gutxiago izango lirateke, eta, ondorioz, kutsadura ere gutxiago sortuko genuke. Oraindik ikerketak egiten dihardute eta merkatuan ez dago, baina, gerora, egongo da.

Ezberdinak dira etxe bioklimatikoak eta Eraikuntza Kode Teknikoan oinarritutakoak. Zertan dago ezberdintasuna?

Etxebizitza bioklimatikoek dauzkate tresna batzuk energia lortzeko haizetik, eguzkitik, lurretik... Kode teknikoak etxe normaletan medio batzuk sartzen ditu kontsumoa jaisteko, baina ez dira eraikuntza bioklimatikotzat hartu behar.

Etxeak eraikitzeak, inguru bakoitzeko klima hartzen da kontuan. Gure ingururako, nolako etxebizitza da egokia klimaren arabera?

Hori erantzutea ezinezkoa da. Klimaz gain, topografia, lurzorua nora begira dagoen eta beste hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Klima terminoa baino gehiago, mikroklima erabili beharko litzateke. Izan ere, herri batean aldamenekoan baino haize gehiago dago; herri bat tontor batean dago, bestea lautadan...

Gaur egun, badira gurean etorkizuneko etxebizitzetara hurbiltzen denik?

Donostian, badago proiektu bat 4.000 etxebizitza egiteko. Bestalde, badira proba pilotuak, Bermeon eta Plentzian, esaterako. Etxebizitza babestuen EAeko erreferenteak, Visesak, ere Kode Teknikoaren arauak betetzen ditu. Beraz, kasu asko daudela esan genezake.

Garestitu egingo dira etxebizitzak, aldaketak aplikatuz gero?

Bai, etxebizitzaren prezioaren igoera %8 eta %10 bitartekoa izango dela aurreikusten da. Pentza genezake jendeak muzin egingo diela horrelako etxebizitzei, baina ez dago beste alternatibarik, eta, etorkizuneko etxebizitzak lege horren arabera eraikiko direnez, igoera ezinbestekoa izango da.

Noiz ikusiko ditugu gurean horrelako etxebizitzak?

Nik uste dut, hemendik bi edo hiru urtera eraikitzen diren etxebizitzetan, Kode Teknikoa normalizatuta egongo dela. Orain abian diren proiektu batzuek, beharbada, ez dute kodea betetzen, aurrez onartu zituztelako. Baina orain onartzen diren proiektuak amaitzeko bi edo hiru urte izango dituzte eraikitzaileek eta, ordurako, eginda ikusiko ditugu eraikin berriak.

oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Udalekuetan izena emateko epea etzizabalduko dute

Maiatzaren 11ra arte egongo da zabalik. Izena emateko, jo Xipizarok Agorrosinen duen bulegora, 17:00etatik 19:00etara. Plaza mugatuak dira, eta 1993-2004 urte bitartean jaiotakoei zuzenduta dago.

DEBAGOIENA

> Korrika 15eko zozketa-ko zenbaki saritua

Korrikako arropa erosterekin batera, kolore moreko zozketa txartelak banatu zituzten. Bada, jakinarazi dituzte zenbaki sarituak: 7136 eta 8589 dira, hain justu. Saria jasotzeko, deitu 944 21 23 29 edo 639 44 06 15 zenbakietara, edo biltegia@ae-net.net helbidera idatzi, maiatzaren 25a baino lehen.

ARETXABALETA

> Udalekuetan begirale jarduteko izenematea, zabalik etzi

Maiatzaren 2tik 17ra bitartean egongo da zabalik izenematea. Bidali curriculumak kultura@aretxabaleta.net helbidera edo kultura etxera (Iralabarri plaza, 13).

ARRASATE

> Gaur egungo dantzen eta euskal dantzen gaineko ikastaro bana

Udaleko Gazteria Sailak antolatu ditu. Gaur egungo dantzen

ikastaroa maiatzaren 7tik ekainaren 13ra izango da, astelehen eta eguaztenetan, 18:00etatik 19:30era. Prezioa 12 euro da ikasle eta langabetuendako, eta 20, gainerakoendako. Euskal dantzen ikastaroa Lore Gazteak taldeko kideek emango dute. Maiatzaren 17tik ekainaren 16ra izango da, eguaztenetan, 19:00etatik 20:30era. Prezioa da 6 euro ikasle eta langabetuendako eta 10 gainerakoendako. Izena emateko, jo Gazte Bulegora (943 77 00 65).

ESKORIATZA

> Emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa dago

Udalak emakumeendako defentsa pertsonal ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 12an eta 13an izango da, 10:00etatik 12:00etara, pilotalekuan. Prezioa 20 euro da, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko

epea. Horretarako, jo kultura etxera edo Gizarte Zerbitzuetara, maiatzaren 7a baino lehen. Leku mugatuak daude.

BERGARA

> Jardunek 'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa abiarazi du

Apirilaren 23an abiarazi zuten, eta bi hilabetez luzatuko da. Horren arabera, liburutegian euskal liburu bat mailegatu hartu eta, harekin batera, eskuorria banatuko dute. Liburua liburutegira bueltatzerakoan, eskuorria beteta eramanez gero, Elkar liburu dendan erabiltzeko %25eko deskontu txartela emanango dute.

ARETXABALETA

> Posta bidez bozkatu nahi dutenendako zerbitzua jarri du EAJK

Posta bidez bozkatzeko orduan zalantzaren bat izan edo lagun-

tza behar dutenendako, zerbitzua jarri du EAJK batzokian. Interesa duten guztiak astelehen eta eguaztenetan 18:00etatik 19:30era bitartean joan daitezke batzokira.

BERGARA

> Ezker abertzaleak bulegoa jarri du posta bidez bozkatzeko

Posta bidez bozkatu nahi duten guztiendako jarri dute bulegoa. Artatse elkartearen dago, 11:00-14:00 eta 18:00-20:00 -zapatuetan, goizez bakarrik. Maiatzaren 17a da posta bidez bozkatzeko azken eguna.

DEBAGOIENA

> Enpresak sortzeko 'online' ikastaroa antolatu du Mankomunitateak

Helburua da nork bere enpresa ideia aztertu ahal izateko pertsona ekintzaileak trebatzea. 150 ordukoa izango da, eta doan. Apirilaren 23an hasi zen ikastaroa, eta ekainaren 29ra arte iraungo du. Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko, deitu 943 79 30 90 zenbakira edo jo www.debagoiena.com helbidera.

ANTZUOLA

> Arrolak Urkulu-Degurira irteera antolatu du

Maiatzaren 6an egingo dute irteera. Izena emateko, jo maiatzaren 2an Arrola Mendi taldearen elkartera, 19:00-20:00 orduetartean.

etxeko leihotik



Inazio Arregi > Goienako zuzendari nagusia

Quousque tandem?, herritarraren galdera

Noiz arte?, galdetzen dio herritar soilak bere buruari herri honen arazo politikoek konponbiderik ez dutela ikusita. Batzuetan itxaropentsu, besteetan kontra, badirudi Barajasko bonbak eta hauteskundeetako hizki-anabasen aurkako mugimenduek berriro murgildu gaituztela etsipenaren itsasoan.

Barajasko atentatua mahai gainean emandako ukabilkada bat izan zen. Gaizki emandakoa. Maindire eta mahaitresna guztiak lekuz aldatu zituen eta mahaiko beste jankideek ez bide dute berriro mahaian eseri nahi euren baso, plater eta aho-zapiak dagozkien tokian ikusi arte. Hauteskundeon ondoren mahaia lehengo itxura berreskuratuko duen esperantza daukat.

Ipar Irlandako Egubakoitz Santuko akordioa duela bederatzita urte izenpetu zen bi urtez negoziatu ondoren. Nahiago nuke hemen epeak laburragoak balira. Itxaropentsu izateko arrazoiak ikusten ditut. *Bururik gabeko pistolak* jarri zion titulua Lander Juaristik egubakoitzeko GOIENKARIAn berak idatzitako artikuluari. Nik uste ez dagoela pistola burudunik, ezta burutsurik ere.

"Noiz arte?, galdetzen du herritarrak arazo politikoaren aurrean"

> Hizki-zoparen

korapiloa askatzen bada, gure herrietako udalek herritarrek emandako errepresentatibitatea berreskuratu egingo dute datozen hauteskundeetan

> Idatzi izan da Batasuna

instituzioetatik kanpo egoteagatik herriak berdintzat hartu izan duela. Ezezkoren nago. Ziur nago udalaren egon diren ere nahiago zutela oposizioan, kanpoan baino

debagoiendarrak kanpoan

Goizane Arana > Arrasate

"AEKn irakasle izanda, lagun asko egin ditut irakasle eta ikasleen artean"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Goizane Aranak Arrasateko AEKn egiten zuen lana; Zarautzera joatea erabaki zuenean, baina, lekualdaketa eskatu zuen. Gaur egun, Zarautzen dabil irakasle eta, azkeneko Korrikan, Urola Kostako arduraduna izan da arrasatearra.

Zerk bultzatu zintuen etxea utzi eta Zarautzera bizi izate-ara joatea?

Erabakia hartu nuen garaian, nire bikotekidea Zarauzkoa zen. Beraz, horrek garrantzi handia izan zuen Zarautzera bizi izate-ara joateko erabakia hartzerakoan. Gainera, etxetik irteteko gogoia ere baneukan. Orduan, Arrasateko AEKn egiten nuen lan; lekualdaketa eskatu nuen, eta Zarauzko AEKn lana egiteko aukera sortu zitzaidan.

Beraz, lana aurkitzeko ez zenuen zailtasunik izan.

Ez; egia esan, lan kontuan, zoria alde izan nuen.

Samur moldatu zinen Zarautzeko bizimodura?

Bai, samurra izan zen. Alde batetik, lana bilatzeko beharrik ez nuen izan; izan ere, Arrasate-tik lanarekin etorri nintzen. Eta bestetik, bikotekidea Zarauzkoa izanda, hango lagun koadrila ere ezagutzen nuen.

AEKn irakasle izatea ere lagungarri izan da: lagun mordoa egin ditut irakasle eta ikasleen artean. Egia esan, ondo moldatu naiz Zarauzko bizimodura.

Desberdintasun handia ikusi duzu kostako eta barnealdeko herrien artean?



GOIENKARIA

AEKn irakaslea da

Goizane Arana (Arrasate, 1977) Zarauzko AEKn ari da lanean. Urola Kostako arduraduna izan da.

Bai, desberdintasun handia dago. Nik uste dut Zarautz Arrasate baino herri lasaiagoa dela. Itsasoa bertan izateak asko egingo du. Zarautzen jende asko bizi den arren, jende gehiena kanpora joaten da lanera; beraz, Zarautzen bertan, ez dago industria handirik.

Kostak badu xarma berezia. Niri, orain, zaila egingo litzaidake itsasorik ez duen herri batean bizi izatea; oraingo, nire asmoa Zarautzen bizi izatea da. Hala ere, arrasatearra izango naiz beti.

Lagun eta familiakoekin, zenbatean behin gelditzen zara?

Ez dakit, nahiko irregularra naiz. Batzuetan, hilean behin joaten naiz Arrasatera eta, beste batzuetan, berriz, hiru astean jarraian joan naiteke. Lagunekin,

gero eta gutxiago egoten naiz, baina, hala ere, Arrasatera joatea gustatzen zait, lagunekin eta familiarekin egoteko.

Zer ekarriko zenuke Zarautzitik Arrasatera?

Arrasateri espazio zabalak falta zaizkio. Eta, nola ez, itsasoa ere eramango nuke Arrasatera. Itsasoak, adibidez, izugarritzko espazioa ematen du. Estresatuta nagoenean, kai-muturra paseoak egiteko izugarritzko tokia da. Lanetik irteten naizenean, askotan joaten naiz kaira.

Zein da Debagoieneko zure toki gustukoena?

Mendiak oso gustuko ditut: Arrasate eta inguruetan, Udaltza eta Kurtzebarri asko gustatzen zaizkit.

kale inkesta

Telebistarik gabeko astea izan da. Pasako zenuke astebete telebistarik ikusi gabe?



Gorka Sagasta
Ikaslea
Bergara

Ez, aspertu egingo nintzateke. Beste entretenimendu batzuk aurkitu arren, batzuetan telebista ikustea ez da gaizki etortzen denbora pasarako. Niri gehien gustatzen zaidan saioa *Presing Catch* da.



Miriam Perez
Langilea
Bergara

Bai, trankil asko, gainera. Orain ere, oso gutxi ikusten dut. Sofan jartzeko, berandutu egiten zait eta, jarri orduko, loak hartzen nau. Telebistan gehien gustatzen zaizkidanak kanpoko telesaiok dira.



Luz Telleriarte
Erretiratua
Bergara

Pasako nuke, bai, baina ondo ez. Filmak ikustea gustuko dut, baita *Amar en tiempos revueltos* telesaila ere. Telebistarik ezean, liburuak irakurriko nituzke, etxean 3.000 liburutik gora dauzkagu-eta.



Oscar Rueda
Langilea
Bergara

Bai; liburu on bat esku artean izanez gero, eta entretenitzeko beste bide batzuk, pasako nuke, bai. Gainera, apenas ikusten dut telebista: lagun bat ateratzen den telesaioren bat edo. Bestela, orde-nagailua nahiago dut.

zorroztailea



Jabier Arantzeta

Biolentzia gaua

“Ezezagun talde batek bart gauean (...) Nafarroako Atarrabiako posta bulegoa eraso du suzko hiru botila erabiliz (...). Gasteizko Bilbao plazan dauden hainbat kutxazain automatiko erasotu dituzte (...) Bestalde, Durangoko EAJ-ren egoitzaren aurkako erasoan hainbat kristal puskatu dira...”

El Diario Vasco > 2007-04-28



Sarrerako titulu hori irakurrita, badirudi Euskal Herri osoan eta Nafarroan, bortxaz eta biolentziaz betetako gaua izan dugula. Portzierto, bortxa eta biolentzia hori toki horietan izan bada, Espainiako hitz egiteko era jarraituko bagenu, Espainiako Iparraldean izan beharko litzateke hain gau gogorra jasan duen tokia, ez?

Baina pazientzia pixka bat hartu eta irakurtzen jarraitzen badugu, laster ikusiko dugu biolentzia ekinga horiek Durangon, Gasteizen eta Atarrabian izan direla. Durangon, batzokiko kristal batzuk apurtu dituzte eta pintura bota, Gasteizko “hainbat kutxazain” bi besterik ez dira izan, eta suzko botila horiek ez dute surik hartu, eta Atarrabian ere bota dituzten suzko botilak ez dute surik hartu.

Donostian segurutzat ez dute jakingo, baina egubakoitzetik zaturako gaua San Prudentzio bezpera zen, jaietako gau handia bai Gasteizen eta bai Durango ondoko Matienan; beraz, pentsatzekoa da, behar baino gehiago edandako mozoloren batzuk, aurreko zereginik ez eta botilekin jolasean ibili direla.

Eta gertakizunok Espainiako Iparraldean gertatu direnez, “biolentzia gaua” izan dira. Madril inguruan edo Hegoaldean gertatu izan balira, gazte mozkorren aldrebeskeriak izango ziren, baina ez, Iparraldean izan dira eta “biolentzia” da nagusi.

Baina ez pentsa honen guztiaren berri Madrilgo egunkari batek eman digunik, ez; honen guztiaren berri Frantziatik Hegoaldean dagoen egunkari batek eman digu. Nonbait, egunkari horrentzat, herri honetan biolentzia badela azpimarratzea oso da garrantzitsua, behintzat, mota horretako biolentzia; izan ere, horientzat ez da biolentzia hauteskudetara aurkeztutako hainbat zerrendatiko kideak guzti-guztiak susmagarri bihurtu eta banan-banan aztertzea, beste zerrenda batean begiratu eta “kutsatuta” dauden zehazteko. Asterixek esango lukeen bezala, “erotuta daude erromatar hauek”.

"Madrilen, gazte mozkorren aldrebeskeriak izango ziren"

"Espainiako Iparraldean gertatu denez, 'biolentzia gaua' izan da"

irakurlearen txokoa

943 25 05 02

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Kaleko iturriek badaukate ura

Irakurle baten deia jaso dugu Arrasateko kaleetan zehar dauden iturrien gainean iritzia emanez. Bere esanetan, "bazen garaia iturriak konpontzeko"; izan ere, irakurle horrek dioenez, "asteak zeramatzen zeharo lehor eta urik isuri gabe". Egin beharrek konponketa zela deritzo herritar horrek. "Egin dituzte konponketak azkenean, inoiz ez da berandu, baina gogoratu behar da herritarrentzat zerbitzu bat dela iturriek ematen dutena", esaten du arrasatear horrek amaitzeko.

BERGARA

> San Martzialera bidearen egoera

Herritar batek deitu digu San Martzialgo aldapan, bihurgunea pasatu ondoren, bide ertzak "arriskutsu" daudela azaltzeko. "Denok dakigun moduan, sarri askotan, autoa aldapan barrena aparkatu behar izaten dugu; baina, bide ertzak berdinuta ez daudenez, autoarekin bertan erortzeko arriskua dago. Gauza bera gertatzen da autoarekin buelta eman behar izanez gero", diosku.

ARRASATE

> Ibaiko urak, garbiago

Arrasatear batek "hobera doan ibaien egoeraren inguruan" iritzia emateko idatzi digu. "Asko gardendu dira erreketako urak" eta "benetan txalotzen dut Otalora Lizentziatuan erreka begi bistan utzi izana. Gehiago egin beharko lukete", dio herritar horrek.

ustek uste

Jon Berezibar

Deba ibaia amaitzen den araztegia

Zumaiatik Debarako txangotxo egin genuen atzo. Labar eta *fisch* artean, hara non egin genuen topo Deba ibaiko ur-araztegiarekin. Estatuko errekarik zikinenarentzako, itxuraz behintzat, instalazio txikiak. Amaitzen doaz Debako ur-araztegi sarea. Sare hori, baina, alferrikakoa da ia ziur, ur-horniduraren beharrak are haratago doaz-eta. Nola liteke; negu erdian urtegiekin arduratuta egoten garenean, edateko ura, harrikoa eta industriadako erabiltzen dena berdina da. Soilik urak garbitu baino gehiago, sareak ura berrerabili egin beharko luke, inork izango duen zentzuak agintzen duen moduan. Debako uren sarea baina, berantiarra eta alferrikakoa izango ez ote delakoan nago. Agenda 21 horretan sartzen da hori?

Goienkaria

Argirarazteilea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktorea Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña Oinarriko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Imanol Soriano Publizitate arduraduna Mireia Larralaga Harpidetza eta banaketa Miren Agirre Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publiz@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **BERGARA**
Boluko eta Zabalotegiko auzoak lotuko dituen errepidearen aurkako agerraldia deitu dute > 11



> **OÑATI**
Pake Leku erretiratuen elkarteak batzorde erdia berri eta estatutuak eguneratu ditu > 12



> **ARAMAIO**
Parrokiako aurreko aldea konpontzeko 9.000 eurotik gora emango du Udalak > 14

EKITALDIA > INTXORTAKO ATEA

Kolore guztietako banderak batu ziren domekan Intxortako Atean

JENDE UGARI

200 lagunetik gora bildu zen atzo Elgetan egindako ekitaldian

EGURALDIA LAGUN

Kontzentrazioan eta ibilaldian eguraldi ona eduki zuten atzo

EDURNE BURGAÑA > ELGETA

Intxortako Atea ekitaldi herrikoa egin zuten atzo Elgetan eta, antolatzaileek gonbidapen ofizialik egin ez bazuten ere, 200 lagunetik gora bildu zen. Herritarrei zuzendutako ekitaldia izanda, Espainiako Gerrako gudariak, haien familiako kideak eta eskualdeko herrietatik etorritakoak bildu ziren herrian.

ORDUKOAK, GOGOAN

Eguna hasteko, Intxortako Atea eskulturaren ondoan kontzentrazioa egin zuten. Koloretsua izan zen, gainera, bilera: ikurri-
na, Errepublikako bandera, CNT-koa... ikuspegi ezberdinetako ordezkariak zeuden bertan.

Eibartik etorritako txistulariarekin, herriko dantzari batek aureskua dantzatu, eta, ostean, lore eskaintza egin zuten.

Jarraian, ibilaldia egin zuten Elgetara. Eguzkirik ageri ez bazen ere, euririk ere ez zuen egin, eta giro ederrean egin zuten ibilaldia bertan zeudenean. Bidean, Salbadorko ermitan dagoen fusilatuen monolitoan geldialdia egin zuten. Bertan, gerrako errepresaliatuei omenaldia egiteko izan zen geldiduna.

Elgetako plazan izan zen hurrengo ekimena. 12:30ean, gudari eta milizianoei omenaldia egin zuten. Arrasate Musikaleko biolin joleak izan ziren lehenak. *Internazionala* eta *Eusko Gudariak* abestiak jo zituzten.

Arrasatetik joanda ere, Jokin Labayen bertsolariak bertsoan jardun zuen ostean; horren atzetik, Bergarako Aritzeta abesbatza. Ekimena amaitzeko, hitzal-



ANITZA Intxortako Atea eskulturaren inguruan bildutako jendea toki eta ideologi ezberdinetakoa zen.

JOSETXO ARANTZABAL

dia egin zuten Lau Haizetara Elkarteko Juan Ramon Garai eta Intxorta kultura elkarteko Julia Mongek. Garaik azaldu duenez, "oso ondo egon da ekitaldia, etsatu baino jende gehiago ibili da, eta ez soilik eskualdekoa, gainera. Oso plurala izan da".

13:15ean, bisita gidatua egon zen Espaloia Kafe Antzokian dagoen erakusketan. Gainera, gerra garaian bizi izandakoa imajinatu ahal izateko, orduko hegazkinen aurkako alarma martxan jarri zuten.

Eguneko azken ekimena frontoian antolatuta zuten bazkaria izan zen. Sarrerak aurrez erosi behar ziren, eta 135 lagunek eskuratu zituzten. Jatordua girotzeko, Joseba Tapiaren *Agur, Intxorta maitea* diskoa entzuten egon ziren frontoian.

Xabier Arantzeta, 'Lepo', gogoan eduki dute Elgetan

Bestelako oroimen ekintzak izan dira Elgetan, *Lehenengo eta oraingo gudariak gogoratuz* izenburupean. Zapatuan, 27 urte bete ziren Xabier Arantzeta Lepo polizia arteko tiroketa batean hil zutena. Urtero egiten dute omenaldia Elgetan, eta aurten ere, halaxe izan da.

Eguerdian, Elgetatik Aseztiorako bidea hartu zuten parte-hartzaileek. 12:30ean hasi zen omenaldia, lore eskaintzarekin eta aureskuarekin.

Aurten, zapatua izanda, eta hauteskundeak gertu daudenez, 13:15ean, plazan kontzentrazioa egin zuten, *Hauteskundeetan aukera danak egotearen alde* lelopean. Ostean, herri bazkaria egin zuten, eta, gero, AHTren aurkako Bilboko agerraldira joan ziren.



Dantzariak, Lepo-ren omenaldian aureskua dantzatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

HAUTESKUNDEAK 07 > ALDERDI POPULARRAREN AURKEZPENA

EAJren kudeaketa salatu du Alderdi Popularrak

Bukatzeaz dagoen legealdian, EAJk kudeaketa txarra egin duela azaldu zuen alkategai popularrak, eguenean, Bergaran, agerraldi publikoan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Alderdi Popularrako hautagai Javier Perez de Arriluzeak, udal hauteskundeetarako dituen helburuak azaldu zituen, eguenean, Bergaran egindako agerraldian. Harekin batera, Regina Otaola Batzar Nagusietarako hautagaiak parte hartu zuen.


KUDEAKETA TXARRA

Alderdi Popularrak Oñatiko udal txerako aurkeztu duen zerrenda jakinda, Javier Perez de Arriluzea alkategaiak Eusko Alderdi Jeltzaleak egindako kudeaketa aztertu zuen.

Errekalde Herri Eskolako haurrek, neguan, hotza pasatu dutela salatu zuen. Ikastetxeko leihoak aldatzerako orduan, Udala eta Eusko Jaurlaritzak ados ez zirela jarri aipatu zuen.

Halaber, San Migel jaietako egitarauan, EAJren oniritziz, presoan aldeko ekitaldiak egon izana ere aipatu zuen. Iraileko jaietako ekitaldi haien ondotik, Alderdi Popularrak salaketa jarri zuen Auzitegi Gorenean.

Apirilaren 4an, beste salaketa bat jarri zuten popularrak; oraingo honetan, Arartekoaren aurrean. "Oñatiko Udalak ez ditu hizkuntzaren erabileraren inguru-



PP Argazkian, Regina Otaola eta Javier Perez de Arriluzea.

OIHANA ELORTZA

ruko arauak betetzen", azaldu zuen Perez de Arriluzeak. "Udalak kaleratzen dituen kartel, iragarki eta bestelakoetan, gaztelania erabiltzea eskatzen dugu, gaur egun, gehienak euskara hutsez kaleratzen dira-eta".

Horregatik guztiagatik, Eusko Alderdi Jeltzaleak legealdi honetan egindako kudeaketa "oso txarra" izan dela azpimarratu zuen Oñatirako hautagaiak.

OPOSIZIO SENDOA

Maiatzaren 27ko hauteskundeei begira, Alderdi Popularrak duen helburu nagusia ere azaldu zuen. "Gu gara, Oñatin oposizioa egiten dugun bakarrak. Ezker Batuak eta PSOEk ez dute indarrik egiten. Baina, zinegotzi batekin oso zaila da oposizioa egitea. Horregatik, gure helburu nagusia, oposizioa ondo egiteko, zinegotzi gehiago lortzea da".



BATZORDE BERRIA Argazkian, batzordeko kideak.

MIREIA BIKUÑA

ERRETIRATUAK > PAKE LEKUREN EZOHICO BATZARRA

Pake Leku elkarteak, batzorde erdia berritu du

Erretiratuen elkarteko batzordea osatzen duten 14 kideetatik zazpi apirileko batzarrean aukeratu zituzten

M^a Teresa Herrera, Pedro Gartzia, Jose M^a Balantzategi, Jose Kruz Gonzalez eta Javier Larrea dira.

ESTATUTU BERRIAK

Apirilean egindako ezohiko batzarrean, batzorderako kide berriak izendatzearekin batera, Pake Leku elkarteko estatutu berriak onartu zituzten. Bileran parte hartu zuten bazkideek aho batez onartu zituzten estatutu berriak.

Erretiratuen elkarteak orain 19 urte egin zituen estatutuak 2002. urtean onartutako legera egokitu zituen. Hortaz, estatutuak eguneratu egin dituztela esan daiteke, ez baitzuten artikulua garrantzitsurik aldatu. Aldaketa txiki batzuk bakarrik egin dira estatutuetan: orain arte azaltzen ez zen presidenteordearen figura jaso dute, eta 80 urtetik gorako bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak zehaztu dira.

Estatutu berriak idazterako orduan, emakume eta gizonezkoen arteko parekotasuna jaso behar izan dute.

M.B. > OÑATI

Apirilaren 11n egindako ezohiko batzarrean, Pake Leku elkarteko bazkideek batzordeko zazpi kide berriak aukeratu zituzten. Hamaika izenez osatutako zerrendatik, boto gehien eskuratu zituzten zazpi bazkideak dira kide berriak: Ana M^a Liziaga, German Aramendi, Jesus M^a Igartua (presidente berria), Rafael Ugarte (idazkaria), Antonio Leturiaga (diruzaina), Javier Agirrebaltzategi eta Ines Murguzur, hain zuzen.

Hortaz, zazpi kide horiek bi urterako hartuko dute kargua. Horiekin batera, urte bateko esperientzia duten beste zazpi kide daude; Ana M^a Kortabarria (presidenteordea), Nati Egaña,

Ikastolako zuzendari eta presidente ohiak omendu zituzten

Txantxiku Ikastolaren 40. urteetan zuzendari eta presidente lanak bete dituztenek omenaldia jaso zuten egubakoitzean, Santa Ana antzokian egindako ekitaldian. Ekitaldian, Ganbara Abesbatzak bi saio eskaini zituen.

Zuzendari eta presidente izandako lagunek plaka bana jaso zuten, ikastolako ikasle ohien eta gaur egun ikasle direnen eskutik.

Txantxiku Ikastolako ikasle ohiek ere euren tokia izan zuten omenaldian. Aurrekoa ikasle ohiek dantzatu zuten, eta ekitaldian kantatutako bertsoak ere, ikasle ohiek idatzitakok ziren.

Argazkirako bildu genituen omenaldia jaso zuten lagunak.



MIREIA BIKUÑA

ESKORIATZA > ERREMENTERI BATZOKIA

Batzokia inauguratu zuten egubakoitzean, Errementeri izenarekin

1992an itxi zuten batzokia ordezkatuko du zabaldu berri dutenak. Edozein herritarrendako elkarte gastronomikoa ere dela argitu dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Egubakoitzean, ekitaldi berezia egin zuten Herriko plazan, Hidalgakaleko 3. zenbakian, hain zuzen ere. Bertan, Gipuzku Buru Batzarrak batzokia zabaldu zuen, eta, herriko eta ibarreko EAJko ordezkariak gain, GBBko buru Joseba Egibar izan zen ekitaldian. Horrez gain, EAJk baliatu zuen ekitaldia udal hauteskundeetarako alkategai Aitor Urrutia jendaurrean aurkezteko.

Batzokia udaletxearen alboan kokatuta dago, Hidalgakalearen 3. zenbakian, hain justu, eta 160 metro koadro ditu. Sarrean, taberna jarri dute eta, barruan, 30 lagunendako jangela, sukaldea eta komunak. Gipuzku Buru Batzarrak eraikinaren baxua erosi zuen, eta zortzi hilabete egin dituzte lokala egokitzen.



ALKATEGAI Aitor Urrutia inaugurazioan. Eskuman, Joseba Egibar. JOSETXO LIZARRALDE

Batzokiari Errementeri izena jarri diote, lehen eraikin berean sutegei bat zegoelako.

ELKARTE GASTRONOMIKOA ERE
EAJko arduradunek azpimarratu zuten, batzokia izateaz gain, Errementeri elkarte gastronomikoa ere izango dela.

EAJko arduradunak oso pozik agertu ziren, aspaldiko partez herrian batzokia izango delako. Izan ere, azaldu zutenaren arabera, 1980an batzokia zabaldu zuten Aranburuzabala kalean, eta 1992an, itxi egin zuten. Orduetik gaur egunera arte, EAJk ez du halako elkarterik izan.



EA-KO TALDEA EAko zerrendaburuak eta alderdikideak.

IKER BARANDIARAN

ARETXABALETA > EUSKO ALKARTASUNAREN AURKEZPENA

EAk zerrenda eta programa aurkeztu ditu jendaurrean

'Aretxabaleta biziberritu' udal programaren puntu nagusienak azpimarratu zituzten

I.B.> ARETXABALETA

Eusko Alkartasuna taldeak prentsurrekoa egin zuen egubakoitzean, Alkartetxean. Ekitaldian, udal hauteskundeetarako zerrendako lehenengo hautagaiez gain, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagai Iñaki Galdos izan zen.

Lore Martinez da EAko zerrendaburuak. Horren ostean, Edorta Mendieta, Andres Lezeta eta Anabel Arantzadi daude, hurrenez hurren.

'ARETXABALETA BIZIBERRITU'

Lore Martinez zerrendaburuak EAren programaren ildo nagusiak azaldu zituen. Subiranotasunaren eta nazio eraikuntza-

ren bidean aurrera egitea funtsezkotzat dute. Horrez gain, bizitza kalitatea garatzea gura dute, ingurumena zainduz eta herriko negozioen alde eginez, besteak beste.

Bestalde, soziokultura arloan herria indartu gura dute, eta euskararen erabilera arlo guztietara zabaldu.

LEINTZAR ALIANTZA OSATU

Ongizateari garrantzia handiago emateaz gain, Leintz ibarreko udalekin bat eginda, Aldundiari eta Jaurilaritzari Debagoienean inbertsioak egiteko Leintzar Aliantza osatu gura dute. Ildo beretik jo zuen Iñaki Galdos ere.

ESKORIATZA

Munduko hizkuntzatan egindako ipuin kontaketak

Kataia eten barik ekimen erraldoiaren barruan, atzo, eguena, eta astelehenean, *Munduko ipuinak* izeneko ekitaldiak egin zituzten.

Astelehenean, Antonio Monteiro portugaldarrak ipuinak kontatu zituen bibliotekan; eta, eguenean, Ouiame Ouchen marokoar berebereak ere halako emanaldia egin zuen. 4 eta 11 urte bitarteko ume dezente izan zituen entzule. Marokoar arabieraz eta bereberez irakurri zituen ipuinak; eta bibliotekako arduradun Iñaki Agirianok, berriz, gaztelaniaz.

Horren ostean, Ouchenek umeen galderak erantzun zituen: zergatik etorri zen, bere kultura zelakoa den...



ARANTZA UNTZUETA

ANTZUOLA

Lapurreta egiten saiatu ziren Eroskin

Hiru gizonetako atxilotu zituen Ertzaintzak, osten saiatzeagatik

AINZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Eguen arratsaldean, hiru gizonetako atxilotu zituen Ertzaintzak, Eroski City supermerkatuan lapurreta egiten saiatzeagatik. Palanka egiteko burdinazko erreminta batekin, supermerkatuko leiho bat indarrez zabaltzen saiatzen zihardutenean harrapatu zituzten ertzainek.

Herritar baten deia jaso zuten Ertzaintzaren Bergarako egoitzan, 14:30 aldera. Herritarrek adierazi zuten hiru lagun zebiltzala Eroski inguruan, eta susmo txarra hartu ziela. Patruila bat hara joan zen eta, deia egin zuen esan bezala, hiru lagun ikusi zituzten, jarra susmagarriekin.

Hiru susmagarriak identifikatu zituzten, eta inguruak miatu zituzten ertzainek; leiho bat indarrez ireki zutela ikusi zuten ertzainek, eta burdinazko erreminta ere aurkitu zuten. Hiru susmagarriak atxilotuta eraman zituzten.

Atxilotutakoak dira I.D.S. (22 urte), A.L. (23 urte) eta G.C. (26 urte). Epailearen esku geratu ziren hirurak.

ARAMAIO > OSOKO BILKURA

Parrokiaren aurreko aldea konpondu egingo dute

Herriko parrokiaren aurreko aldeak konpondu beharra dauka, eta dirulaguntza eskatu diote Udalari; onartu dute kopuru osoaren erdia ematea

UBANE MADERA > ARAMAIO

Makina bat gai landu dituzte oraingo asteko osokoa. Bestelakoan artean, onartu zuten Aramaio Sagartzaien Elkarteari (ASE) hitzarmena sinatzea. Haren bitartez, kultura etxearen azpialdean Udalak dituen hiru lokaletatik bi ASEri utziko dizkio bi urterako.

URA HARTZEKO ESKAERA

Udalbatzarrak onartu zuen, baita ere, elizaren fatxada berritzeko dirulaguntza ematea. Aurrekontua da 9.030,15 euro, eta kopuru horren erdia emango du Udalak.

Bestalde, Legutio udalerritik beste eskaera bat jaso du Aramaio Udalak: baimena Aramaio bi iturritatik ura hartzeko, Legutioarako. Azken udalerririk horretan ur gutxiago dutelako egin dute eskaera hori. Udalak onartu egin du eskaera.



PARROKIA Aramaio eliza nagusia.

GOIENKARIA

Laguntza kontuekin jarraituz, Udalak Diputazioari auzolanerako laguntza eskatzea ere onartu zuten; hain justu ere, Etxaguen, Suña, Untzilla, Arrio-

la eta Uribarri auzoetan eta ASEren lokaletan auzolanak egiteko.

Bukatzeko, bestelakoan artean, onartu zuten musika irakuntzarako 17.353,24 ematea.

ARAMAIO

Gizarte zerbitzuen inguruko laguntzak

U.M. > ARAMAIO

Gizarte Zerbitzuekin lotuta ekimenen bat egiten dutenendako, dirulaguntzak eskatzeko epea zabaltu du Udalak. Honako zeregin hauetarako emango ditu laguntzak: bate-tik, zentroak eta zerbitzuak mantentzeko; bestetik, pertsona nagusiak, elbarritasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonak, emakumeak eta gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden taldeak laguntzeko edo gizarteratzeko programak lantzeko.

Hirugarrenik, laguntza emango dute, baita ere, Arabako landa-eremuan komunitatearen garapena sustatzeko, boluntarioen lana eta gizarte ekimena bultzatzeko; eta, azkenik, drogen mendekotasunari aurrea hartzen laguntzeko.

Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 11n bukatzen da. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (Diputazio kalea, 13, Gasteiz) egin behar dira eskaerak.

LEINTZ GATZAGA

Maiatzean bukatuko dute parkea berritzen

Jarri dute hesia eta lurra bota ostean txintxaunak eta eserlekuak datoz

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Udaletxe alboan dagoen parkeko lanak luzatu egin dira, baina maiatzean bukatuko dituztelakoan daude Udaleko arduradunak.

Hesia jarri dute atzeko partean dagoen horman, eta orain lur geruza botako dute, belarra ereiteko. Lehen moduan, txintxaunak egongo dira gero ere, eta dagoeneko aukeratu dute zein jarri; oraingoz, bakarra. Eserlekuak ere jarriko dituzte atsedeen hartzeko, eta zuhaitzak sartu ere bai. Ez dituzte zuhaitz handiak gura, lehen ere arazoak eman zizkietelako sustraiek; hortaz, motel hazten direnak landatzeko asmoa daukate. Seguru asko, guraso eta umeen laguntzarekin landatuko dituzte.

ELGETA > HERRIKO 26 UMEK ERABILI DUTE LUDOTEKA ZERBITZUA 2006-2007 IKASTURTEAN

Ludotekak askari batekin amaitu zuten barikuan aurtengo ikasturteko ekitaldia

Zerbitzuak estima handia duela esan du zazpi hilabetez herriko umeak ludotekan hartu dituen Enara Merinok

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Azaroaren 6an zabaltu zituen atea Elgetako ludotekak. Orduetik, astelehenean bitartean egunero hartu ditu 3-10 urte bitarteko umeak. Aurten, 26 ume erabili dute zerbitzu hori. Jolasak, eskulanak, mahai-jokak, antzerkia eta abar egin dituzte umeek egunero 16:00etatik 19:00etara bitartean.



ARRATSALDE PASA Askaria, abestiak eta antzerkia izan zituzten ludotekako umeek

JOSETXO ARANTZABAL

"Jendeak estimatzen duen zerbitzu bat da ludoteka", esan dio asteleheneko GOIENKARIAri zazpi hilabeteotan bertan begirale lanak egin dituen Enara Merinok. "Udaberri partean, jaitsi egin da ludotekara etorri den ume kopurua, baina, neguan, gainezka egon da".

AGURTZEKO ASKARIA

Zazpi hilabetez elkarrekin jolastu eta abestu ondoren, barikuan, askaria prestatu zuten Merinok ludotekako umeek.

"18 ume etorri dira", azaldu du Merinok. "Elkarrekin merienda egin ostean, jolasean

eta kantuan aritu gara. Antzerki txiki bat ere egin dute ume batzuek".

Elgetako umeek festa giroan amaitu zuten barikuan ludotekaren ikasturtea. Ateak itxi ditu oraingoz, baina hurrengo neguan berriz zabaltuko ditu.


Kirola




> **FUTBOLA**
Aloñak irabazi dio UDARI ibarreko futbol derbian > 18



> **ESKUBALOIA**
Verkol Aloñak ligako azkeneko jardunaldia jokatu du > 19



> **SASKIBALOIA**
Candyk igoera lortzeko postuan jarraitzen du, irabazi ostean > 20



> **PILOTA**
Ibai Bolinagak Matienako final nagusia jokatu du bihar > 21



MENDIZALEAK Zapatu gaua Gatzagan eman zuten mendizaleek. Irudian, ibilaldian parte hartu zutenak.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > AED EUSKARA ELKARTEAK ANTOLATUTAKO IBILALDIA

'Hiru haundixak hiru egunetan' ibilaldia gaur amaituko da

39 MENDIZALE

Aurtengoa 10. edizioa da eta, guztira, 39 mendizale ari dira proban parte hartzen

GORBEIA

Aizkorri eta Anboto igo dituzte aste bukaeran; gaur, berriz, Gorbeia igoko dute

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Gaur amaituko da AEDk antolatutako *Hiru haundixak hiru egunetan* mendi martxa. Otxandion gaua pasa eta gero, goizean goiz, mendizaleak Gorbeia (1.481 metro) abiatuko dira. Han, mendi martxako hirugarren eta azkeneko tontorra egingo dute mendizaleek; izan ere, aste bukaeran, lehenengo Aizkorri (1.528 metro) eta gero Anboto (1.330 metro) igo dituzte.

TOKI GUZTIETAKO MENDIZALEAK

Aurtengoa Arrasateko euskara elkarteak antolatu duen hamargarren mendi martxa izan da. Bada, hain urteurren berezia ospatzeko, 39 lagunek eman dute izena aurtengo *Hiru haundixak hiru egunetan* mendi martxa ospetsuan. Parte-hartzaile gehienak Debagoienekoak izan arren, Gasteiz,

Ondarroa, Mutriku eta Ibarrik etorritako lagunak ere izan dira mendi ibilaldian. Beste behin, Aizkorri, Anboto eta Gorbeia igo dituzte mendizaleek, gure inguruko mendi tontor esanguratsuenak, hain zuzen.

ZAPATUAN, AIZKORRIN

Zapatuan, goizeko 7etan, elkartu ziren mendizaleak Arrasaten. Autobusez, Arabako Zaldudondora joan ziren, eta han, mendi martxako lehenengo etapari ekin zioten zaleek.

IBILALDIA, DATUTAN

Hiru egunetan, 100 kilometro mendian oinez

Hiru haundixak hiru egunetan mendi martxak gure inguruko mendi esanguratsuenak zeharkatzen ditu. Ibilaldiak 100 kilometro inguru ditu, hiru etapatan banatuta. Hala, lehenengo eguneko etapa da luzeena: guztira 37,7 kilometro inguru dira, eta, tartean, Aizkorri igo behar da. Gainera, Aizkorri da hiru tontorretan garaiena (1.528 metro). Bigarren egunean, Anboto igozten dira parte-hartzaileak (1.330 metro) eta guztira 31,1 kilometro egiten dituzte. Azkeneko eguneko etapa 31,2 kilometrotakoa da, eta Gorbeia igo beharra izaten da (1.481 metro). Guztira, 9.800 metro inguruko gorabehera igo eta jaisten dute mendizaleek. Bestalde, Manuel Iradier elkarteak antolatuta, egun bakarrean egiten da *Hiru handiak* lasterketa bi urtean behin. Aurten ez da egingo.

Lehenengoa zortzi orduko ibilaldia izan zen; euria eta haizea izan zituzten, baina, hala ere, mendizaleek egun polita pasa zuten mendian. Aizkorri tontorra egin eta Gatzagara jaitsi ziren. Han egin zuten 39 mendizaleek. Bigarren etapa, atzokoa, Gatzagan hasi eta Otxandion amaitu zen. Aurten, beste urte batzuetan ez bezala, parte-hartzaileek Otxandioko herri eskolan pasa dute gaua. Beste urteetan, Urkiolan egin izan dute lo.

LEHENENGO MARTXA, 1997AN

Urteak pasa ahala, AEDk antolatutako mendi martxak gero eta zale gehiago ditu. Lehenengo ibilaldia 1997. urtean egin zuten. Orduz geroztik, urtero antolatu du *Hiru haundixak hiru egunetan* mendi martxa Arrasateko euskara elkarteak.



SENIOR MAILA, EUSKADIKO TXAPELKETA

Goitik hasita, lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Narciso Pavo (koordinatzailea), Arturo Robledo (entrenatzailea), Antonio Regaño (entrenatzailea) eta Carlos Gomez (delegatua).

Goitik hasita, bigarren ilaran, ezkerretik eskumara: Aitor Romero eta Andoni Castro.

Goitik hasita, hirugarren ilaran, ezkerretik eskumara: Mikel Castro, Fernando Cubillo, Jorge Mora, Bittor Carballares eta Jonathan Valor.

Goitik hasita, laugarren ilaran, ezkerretik eskumara: Imanol Ramos, Antonio Tena, Emilio Gomez, Aratz Kortazar eta Borja Garcia. Argazkian Juan Regaño (delegatua), Sergio Souto

rol Elkarteak 06-07 (Areto Futbol saila)



ARABAKO TXAPELKETA, OHOREZKO MAILA



GAZTE MAILA NAZIONALA



eta Enrique Tena falta dira.

SENIOR MAILA > IGOERA FASEA

Igoera lortzeko lehian, gogor jarraitzen du Bergarak

Igoera fasea amaitzeko hiru jardunaldi falta direnean, bergararrak bigarren dira sailkapenean

CANDY BERGARA

61-47

BAR IRAETA DONOSTI

Candy Bergara > Aizpuru, Blazquez (4), Ortiz (13), Morais (8), Arteaga (7), Murillo (3), Beitzegi (7), Ugarte (7), Olaetxea, Iñarra (5), Fernandez (2) eta Herzog (5).

Bar Iraeta Donostia > Recondo (4), Del Amo (2), Txolarra, Barrenetxea (4) Telleria (3), Sagrado (12), Etxezarreta, Bidegain, Otegi, Polo (22) eta Olaziregi.

Laurdenetako emaitzak > Lehenengo laurdena: 19-12. Bigarren laurdena: 32-25. Hirugarren laurdena: 45-39. Laugarren laurdena: 61-47.

la gero eta hurbilago dute bergararrak, igoera faseko lehenengo hirurek lortuko dute eta Gipuzkoako lehenengo mailara igotzea.

ZAILTASUNAK DEFENTSAN

Zapatuan Labegaraietan jokatuako norgehiagoka igoera faseko 15. jardunaldia izan zen. Azken emaitza mardula izan arren, lehia ez zen batere samurra izan etxekoentzat.

Begararrak lehenengo minututik jarri ziren markagailuan aurretik, eta errentari lehia guztian eutsi zioten. Hala ere, errenta hori partiduko une batzuetan asko txikitu zen: hirugarren laurdeneko 6. minutuan, adibidez, donostiarrak 39-38 hurbildu ziren markagailuan. Partidua berdintzeko aukera polita izan zuten donostiarrak, baina, hirugarren laurdena amaitzeko bi minutu falta zirela, lehenengo Herzogek eta gero Arteagak, hiruko saskiratzeak egin zituzten. Hala, Bergarako Candyk, azken bi minutuetan, 6-1eko partziala egin zuen, markagailua 45-39 utziz.



ERREBOTEA Bergarako hiru jokalaria, errebotea hartzeko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

Begarako mutilek defentsan egindako lanak eragina izan zuen Labegaraietako markagailuan. Hala, markagailuan errenta mardula izan zutenetan, etxekoak defentsan behera egin zuten eta, ondorioz, markagailuko errenta galdu zuten. Bada, hirugarren laurdenaren amaieran, Iker Barbero entrenatzaileak Bergarako mutilei zuzendutako berbek bere eragina izan zuten; azkeneko laur-

denean, bergararrak indartsu atera ziren. Lehenengo bi minutuetan, 9-0eko partziala egin zuten, markagailua 54-39 utziz.

Azkenean, etxekoek lan txukuna egin zuten, eta bi puntuak esku-ratzea lortu. Labegaraietako azken emaitza 61-47 izan zen.

Datorren asteko jardunaldian, Bergarak atsedena izango du. Beraz, bi partidu besterik ez zaizkio geratzen Barberoren taldeari.

LEHENENGO MAILA

Mugarrik irabazi egin zuen, eta Baskoniak, galdu

ZORNOTZA

77-87

MUGARRI ALKESA

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Aste bukaera borobila izan da Mugarri Alkesarendako. Arrasatearrek, asko sufrituta, baina irabazi egin zuten Zornotzaren aurka. Halaber, Baskoniak Ocaso Berriotxoaren aurka galdu egin zuen. Hala, arrasatearrak sailkapeneko bigarren tokian daude. Hortaz, euren esku dute seiko finale-ra sailkatzeko txartela. Amaitzeko falta diren bi partiduetan irabazi behar ditu Gorka Zurutuzaren taldeak.

ZORNOTZAKO PARTIDUA

Baskoniaren porrota jakin aurretik, partidua gogorra jokatu zuen Mugarri Alkesak Zornotzaren aurka. Bi baja garrantzitsu zituzten arrasatearrek zapatuan: Ikerrek eta Beñatek ez zuten jokatu.

Lehenengo bi laurdenak oso eskasak izan ziren arrasatearren aldetik; tentsio txikiarekin jokatu zuten. Hala, atsedenean, sei puntuak desabantaila zuen Mugarri Alkesak.

Atsedenen ondoren, hirugarren tartean, bikain jokatu zuten Zurutuzaren mutilek: 16-30ko partziala egin zuten.

Hala, azkeneko tartean, 8-10 puntuko errentari eutsi zioten, eta norgehiagoka irabazi zuten arrasatearrek.

GIPUZKOAKO LIGA > SENIOR MAILAKO NESKAK

Hirugarren tartean galdu zuen Aloñak liderraren aurka

ALOÑA MENDI

25-52

INTERNACIONAL

LEHEN ZATIA, OSO ONA

Aloñako neskek oso ondo jokatu zituzten lehen bi laurdenak; defentsako nahiz erasoko lana bikain egin zuten. Hala, atsedenean, sei puntu ziren atzetik (12-18).

Internacional taldeak hirugarren tartean erabaki zuen lehia bere alde: bi minututan, 0-8ko partziala eginez, tartea zabaldu zuen. Partzial haren ondoren, etxekoak behera etorri ziren, eta lehia irabazteko aukera guztiak galdu zituzten. Halaber, Internacional taldeak, defentsa ona eginez, kontraerasoan ondo jokatu zuen.

Horregatik guztiagatik, Aloñak liga txapelketako azken norgehiagoka galdu egin zuen.

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Senior mailako nesken liga txapelketako azken jardunaldia jokatu zuten, zapatuan, Oñatin, Aloñak eta Internacional taldeak.

Liderarren aurka jokatu arren, oñatiarrek, lehen bi laurdenetan, estu hartu zuten Internacional taldea. Bada, amaieran, garaipenak ihes egin zien.



BARNERATZEA Argazkian, Carolina Maestro, baloiarekin. JOSETXO ARANTZABAL

emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Zornotza-Mugarri Alkesa 77-87

SENIOR MUTILAK

Aloña Mendi atsedena

Candy-Bar Iraeta 61-47

SENIOR NESKAK

Aloña Mendi-Internacional 25-52

GAZTE MUTILAK

Easo A-Mugarri Alkesa bihar

GAZTE NESKAK

Kortazar taberna Txirrita-MCM 45-36

KADETE MUTILAK

Bergara-Aloña 37-12

Ford Mugarri-Tolosa 62-68

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK

ASEGI
www.asegim.com
ESTRADÓS
www.consultoriaestrados.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas
MARRUBI
www.marrubi.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

ARETOAK
360 ARETOA
www.360aretoa.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi
AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ARRANDEGIAK
ITSAS EDER
www.goiena.net/blogak/itxaseder

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak
LAGUN ARO
www.seguroslagunaro.com
WINTERTHUR
www.axawinterthur.es

AUTO – KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO4
www.4quattro4.com

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSKAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

EGUZKI OIHALAK
TOLDOS LETE
www.toldoslete.com

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ELKARTEAK
EUSKAL HERRIKO MAHAI-FUTBOL
FEDERAZIOA
www.goiena.net/blogak/ehmff

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando
ROTUDENAK
www.rotudenak.com

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net
GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder
LILURA
www.goiena.net/blogak/lilura
MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

FISIOTERAPIA ZENTROA
EKIN
www.goiena.net/blogak/ekin

GARAJEAK / KONPONKETA
AUTOS ARETXA
www.autosaretxa.com
AUTOS RIBELOGA
www.autos-ribeloga.com
GALLASTEGI MÓTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi
JC RACING
www.goiena.net/blogak/jc racing

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport
ZAINDUZ
www.goiena.net/blogak/zainduz

GOZOGINTZA EKOLOGIKOA
ETA INTEGRALA
GALGORRI
www.goiena.net/blogak/galgorri

HARATEGIA
LANDALUZE
www.goiena.net/blogak/galgorri

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEKAK
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIAK
MONDRAGON LINGUA
www.mondragonlingua.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

IKASTETXEAK
ARETXABALETA INSTITUTUA
www.iaretxabaleta.com
ARIZMENDI IKASTOLA
www.arizmendi.ikastola.net
ELKAR-HEZI IKASTETXEA
www.elkarhezi.com
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
www.mondragon.edu

ILE-APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INDUSTRIA HORNIDURAK
SUMINISTROS UGARTE
www.suministrosugarte.com

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dccompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOAK
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIARIK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com
ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com
KOROSTI
www.inmokokorosti.com
UDALATX
www.udalatx.com

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
MARKIEGI
www.goiena.net/blogak/markiegi
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-aldejatetxea.com
DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental
DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena
MAULANDA MERENDERUE
www.goiena.net/blogak/maulanda
OTZETA
www.goiena.net/blogak/otzeta
TABERNA BERRI
www.goiena.net/blogak/tabernaberi

KALAMUA
KLOROFILA
www.klorofila.com

KIROL DENDAK
LAINO. SKATE & SNOW
www.laino.info/

KONGRESU ETA BILKURAK
GANDIAGA TOPAGUNEA
www.gandiagaopagunea.com

LANDETXEAK
ARTEAGA
www.artegalandetxea.com
ATERBE
www.aterbe.com
UXARTE
www.uxarte.net

LANTEGI ETA TAILERRAK
BATUAK S.A.
www.batuak.com
LINEAS LASA
www.lasa.es
PERFIPAR
www.goiena.net/blogak/perfipar
TALLERES CARPINSA S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik
EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore
MAYTE LORADENDA
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OKINDEGIAK
AIASTUI
www.goiena.net/blogak/aiastui
OGIZUN
www.goiena.net/blogak/ogizun

OPARIARIK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA
HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia
ANTONIO BENITO
http://www.antonibenito.net

PROIEKTUAK ETA DEKORAZIOA
FORMAK
www.formak.net
IPAR PROJECT
www.iparproject.com

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com
AKORT-PUBLICIDAD
www.akort-publicidad.com

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BASTIDA
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly
GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea
HAMAIIKA... TABERNA
www.goiena.net/blogak/hamaikataberna
ZIRIPOT
www.goiena.net/blogak/ziripot

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganesh

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO
BULEGOA
www.aizue.com
ARRASATEKO EUSKARA
BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA
www.goiena.net/blogak/aebpn

UMEENDAKO ARROPA
HAURTXXOA
www.goiena.net/blogak/haurtxoa

ZERAMIKAK ETA BAINUAK
URBIETA
www.goiena.net/blogak/urbieta
GELATZU
www.gelatzu.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEAK
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **IKASTAROAK**
Gazteendako ikastaroak daude Bergaran maiatzean > 24



> **THE ANSWER**
Talde irlandarra Oñatiko gaztelekuan arituzen barikuan > 26



> **DES-KONTROL**
DVDrako materiala grabatu dute 3.60an emandako kontzertuan > 26



> **LOS CRETINOS**
Euren lehenengo diskoa, kalean, eta bigarrena prestatzen > 27



ELKARTASUNA Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek Iturrigorri elkartearen aldeko emanaldia egin zuten Arrasaten.

JOSETXO ARANTZABAL

Amaia Antzokira 650 pertsona inguru joan zen zapatuan

Iturrigorri eta Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorrek elkarrekin antolatu dute ekimena

Herenegun bildutako dirua hezur-muinaren inguruko Iturrigorri elkartearentzako da

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Arrasateko Amaia Antzokian, herenegun, zapatua Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoen emanaldia ikusteko aukera egon zen. Bertan jasotako dirua Iturrigorri elkatearentzako izango da, eta guztira 650 bat lagun bildu zen: arrakastatsua, antzokian ez delako askoz gehiago sartzen.

LAGUNTASUNA, HELBURU

Ikusgarria eta dibertigarria izan zen zapatuko emanaldia. Haurrekin jolasteko, zortzi esketx egin zituzten, eta betiko kantak abestu zituzten: *Pinto-pinto*, *Zapi*

zuria... Jende asko egotea espero zuten, baina beldurrez zeuden, asteburu luzea zelako. Hala ere, lortu zuten betetzea, eta horrela, jende asko laguntzea.

Iturrigorri elkarte hezur-muinaren emailen gaineko elkarte da. Arrasateko Maialen Zulueta neskatoaren kasua ezaguna egin zenean sortutakoa da.

Baina zer ikusi dute pailazoei elkartearekin? Txiribiton juniorrek kontatu du: "Urtarrilean, egunkarian ikusi genuen Maialenen kasua. Bertan, argazki baten azaltzen zen Maialen gurasoekin, eta sorpresa hartu

genuen, atzealdean Txirri, Mirri eta Txiribiton argazkia agertzen zelako. Eurekin kontaktuan jarri eta, guztion artean, saioa egi-tea pentsatu genuen".

Iturrigorriren helburuak asko dira: "Garrantzitsuena hezur-muinaren emaila kopurua handitzea da; eta, horrekin batera, gaixo daudenen familiei dirulaguntzak eskaintzea. Izan ere, ikusten dugu behar handia dagoela. Gizartearen sentsibilizazioa handitzea ere nahi dugu, eta, azkeneko puntua, eta oso garrantzitsua hau ere, erakundeekin eta autoritateekin-eta koordinazioa lantzea", azaldu

du Iturrigorriko kide Mikel Lopez de Arkautek.

Pailazoen ekimena izan da egin duten azkena, baina ez bakarra: "Maiatzaren 7an, batzarra egingo dugu. Legebiltzarreko Osasun Batzordean aurkeztuko dugu elkarte, bere proiektu, asmo eta eskariekin batera. Batzarrak gure ibilbidea markatuko du, alde batera edo bestera", adierazi du Lopez de Arkautek.

Aurreko astean jarri zuten martxan www.iturrigorri.org webgunea. Ez dute egoitarik, eta harremanetan jartzeko era webgune hori izan daiteke.

MENDEKOSTE JAIK > EGITARAU

Egitarau zabala prest dago maiatzaren 25ean hasiko diren Mendekosteetarako

Herriko jaiak hasteko, 20:00etan, Bitorianatxoren jaitsiera egingo dute San Martin plazan; etxafuegoak ere ez dira faltako

EDURNE BURGAÑA > BERGARA

Bergarako Mendekoste jaiak maiatzaren 25ean hasiko dira; bost egunetako jai giroa Bitorianatxoren jaitsierak hasiko du. Egubakoitzean izango da hori, 20:00etan, San Martin plazan. Hona hemen jaietako egitaraua osatzen duten ekimenetako batzuk.

DENETARIK

Barrakak eta txosnak ere egun horretan zabalduko dituzte. Gauean, Belceblues, Red House eta 12 Tribu taldeek kontzertua emango dute Bideberrin.

Zapatuan, hilak 26, 09:00etan hasiko da haur eta gazteen 27.



HERRI BAZKARIA Astelehenean, koadrilen egunean, bazkaria izango da plazan; txartelak salgai daude.

ARTXIBOA

plastika sariketa. 10:00etan, diena egongo da Bergarako kaleetan zehar, eta 13:30ean, plastikako sari banaketa. Baina ez da lehia-

keta bakarria izango: egun horretan, bakailao lehiaketa ere egingo dute herriko elkarteek San Martin plazan.

Motokrosa gustuko dutenek Euskadiko Open txapelketa ikusteko aukera edukiko dute Eginoko zelaietan. Skatea gustuko dute-

nek, oster, Labegarrietan egun osoan edukiko dute zer egina.

Domekan, 11:00etan, meza nagusia izango da San Pedron, eta 12:30ean, Udal Musika Bandak kontzertua emango du Espoloian. 17:30ean hasita, Euskadiko Dantza Askatuko 30. edizioa jokatuko dute San Martin plazan.

KOADRILEN EGUNA

Koadrilen eguna astelehenean ospatuko dute bergararrek. Lo arrastoak kentzeko, 08:30ean sokamuturra egongo da San Martin plazan eta Barrenkalen; 13:00etan, koadrilen kalejira txarangarekin, eta 14:30ean, herri bazkaria. Bertara joan nahi dutenek, sarrerak Pol-Polen eta Kortazarren eros ditzakete 10 euroren truke. 17:00etan, jokoak egingo dituzte koadrilek. Gaua alaitzeko, 22:30ean Bideberrin, No Crew, Azkaiter Pelox eta Tri-kizio taldeak ariko dira.

Azkeneko eguna umeena izango da. 11:30ean zabalduko dute Ipintza IIko jolasparkea. Gauerdian, jaiak amaitzeko, Bitorianatxoren igoera eta agurra egingo dute San Martinen.

IKASTAROAK > GAZTEENDAKO EKINTZAK

Serigrafia tailerra egin dute Agorrosinen herriko gazteek

Aitor Lagoma, Arte Ederrak amaitzear dagoen bergararra, eduki dute maisu ikastaroan parte hartu duten gazteek

E.B. > BERGARA

Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak gazteentzako aisialdirako hainbat ekintza antolatuta ditu maiatzetarako. Lehenengoa, eta oraindik apirila bazen ere, pasaden domekan egin zuten: serigrafia tailerra.

KAMISETEKIN LANEAN

Agorrosinen izan zen ikastaroa, eta bertara joan nahi zuenak ez zeukan izena eman beharrik: gogoia eduki eta ekintza gunera joatea nahikoa zen. Bertan, serigrafiaren nondik norakoak ikasi zituzten gazteek Aitor Lagomaren laguntzarekin. Bergararra da Lagoma, eta Arte Ederretako ikasketak amaitzear dago.

17:00etan hasi zen ikastaroa, eta irakasleak diseinatutako pan-



APAINTZEN Serigrafia tailerrean, kamisetak apaindu zituzten.

JOSETXO ARANTZABAL

tailekin lan egin zuten. Hiru ordu eman zituzten gazteek etxetik eramandako kamisetak apaintzen.

Baina hori ez da antolatutako ekintza bakarria. Maiatzeko martitzenetan, antzerki tailerra egin-

go dute Taun-Taunekoekin. Zapatuetan, berriz, hankapaloetan ibiltzen ikasteko aukera izango dute.

Ikastaroak doan dira eta, informazioa lortzeko, kultura etxera jo behar duzue.

MAGIA > MAGIA MOSTRAREN III. EDIZIOA

Magia Mostraren III. edizioko sarrerak, salgai

Asteburuan egingo dituzte ekintzak: barikuan hasita, sei mago pasatuko dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokitik

E.B. > ELGETA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak goi mailako sei mago hartuko ditu oraingo asteburuan: barikuan hasita, domekara arte, Magia Mostraren III. edizioa izango dute herrian.

MAILA HANDIKO MAGOAK

Barikuan eta zapatuan, hainbat estilo magoak arituko dira Espaloian. Barikuan, Roberto Giobbi suitzarrak kartomagia modernoaren erakustaldia egingo du.

Zapatuko galan, oster, Luis Manuelek manipulazioa egingo du, eta Nacho Diago, Murphy, Raul Alegria eta Yunke ere ari-


tuko dira ekitaldian. Guztiak izen handiko magoak dira.

MAGIA, KALERA


Domekan, kaleak hartuko du garrantzia. Izan ere, Arabako ilusionismo elkarteok tabernetan, elkarteetan, plazan eta beste hainbat txokotan arituko dira eta, tartean, txikiendako globoflexia ere egingo dute.

Sariak ere banatuko dituzte. Publikoak mago onena aukeratu beharko du eta, parte hartzen dutenen artean, antolatzaileek bi pertsonarendako afaria eta Gasteizko Magia Jardunaldietarako sarrerak zozketatuko dituzte.

Sarrerak salgai daude. Bari-kukoa 15 euro kostatzen da; bazkideentzako, 11. Zapatuko sarreretatik oster, 16 euro ordaindu beharko dira, eta bazkideek, 12. Bi egunetarako bonoa ere lor daiteke: 28 euro balio ditu, eta bazkideentzako, 21. Euro batzuen truke, magia ikusteko aukera bikaina egongo da Elgetan asteburuan.



Jatetxe Gida



Azpeitxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

ROCK-AND-ROLLA > THE ANSWER ETA RADIO WINGS, OÑATIKO GAZTELEKUAN

Oñatiko gaztelekua lepo bete zen The Answer talde irlandarra entzuteko

Irlandarrek, Oñatiko jendea soilik ez, inguruetakoa ere ekarri zuen gaztelekura

IMANOL SORIANO > OÑATI

Kontzertua 22:30erako iragarrita bazegoen ere, gaueko hamarrek aldera, Oñatiko gaztelekuko sarreran adin guztietako jendea batu zen, atea noiz zabalduko zain. Arrasateko Radio Wings eta The Answer irlandarrek jo behar zuten.

RADIO WINGS

Welcome abestiarekin hasi zuen Radio Wings Arrasateko laukoteak kontzertua. Hamabi abesti jo zituzten; maketako abestiak, batzuk, baina, gehienak, maketatik kanpokoak. Hasiera ona izan zuen rock gauak.

ARAZO TEKNIKOAK

Taulara igotzen luzatu egin ziren The Answer irlandarrak. Soinu proba ugari egin zituen taldearen laguntzaileak. Publikoa aspertu egin zen bi talderen arteko aldaketak hainbeste iraun izanagatik. Gainezka zegoen areto-



MAILA ONA Prentsan duten izen onaren zergatia argi utzi zuten The Answer taldeko irlandarrek.

JOSETXO ARANTZABAL

an, atzeko ilaretatik txistuak entzun ziren eta, gutxinaka-gutxinaka areto osoa hartu zuten.

IRLANDARREN POTENTZIA

Hasi ziren halako batean. Instrumentuak hartu eta gogotsu ekin

zioten, soinu potentzia handiarekin. Bigarren abestia hasi baino lehen, "Gabon, Oñati" esan zuen taldeko abeslariak irlandar azen-tuarekin.

Gehienbat, *Rise* albumeko abestiak jo zituzten: *Come Follow*

Me, No Questions Asked eta *Always*, besteak beste. Jarraitzaileak abesten eta, lehenengo ilaretan, dantzan egon ziren.

Taldeakideak publikoarekin ondo moldatu ziren, eta abesti berri bat eskeini zieten, *Revolu-*

tion. Txaloekin, gustuko izan zela ulertarazi zuten jarraitzaileek.

Hiru errepikapen egon ziren; tartean, Aerosmith taldearen *Sweet Emotion* abestiaren bertsio bat. *Be What You Want* abestiarekin bukatu zuten kontzertua.

PUNK-OI! KONTZERTUA > DES-KONTROLEKOAK 3.60AN

Des-Kontrolkoek gogoarekin utzi zituzten zaleak

AEBtatik bueltan, sekula baino ganora gutxiagorekin aritu ziren 3.60an

A.G. > ARRASATE

Egubakoitz gauean, Des-Kontrol taldekoek euren herrian eman zuten kontzertua: Arrasateko 3.60 aretoan izan zen emanaldia. Beste kontzertu batzuetako grina faltan sumatu zuten zaleak.

NEKATUTA-EDO

Kontzertua Orreaga 778 oi! talde donostiarrek hasi zuen. Des-Kontrol taldekoen txanda izan zen jarraian. 1996. urtean Arrasateko bost gaztek sortutako taldea da berau. 70eko hamarkadako punk-a, 80-90eko oi! zein street-punk-a dira euren influentzia nabariena. Arrasatearrak AEB-

tatik bueltatu berri daude, eta hori aitzakiatzat hartuta egindako festa izan zen barrikukoa. Baina hanka motz edo indar barik geratu zen festa.

Jende gehiegi ere ez zen bildu 3.60an. Duintasunez eutsi eta behin eta berriz diskoetako abestiak jo zituzten, baina beti indarra faltan sumatu zen. Hala eta ere, entzulegoa gustura egon zen *Chicos del oi!* edo *Des-Kontrol* bezalako abestiak entzuten.

Kameralari bat ere ibili zen giroa jasotzen. Izan ere, etorkizunean DVDA kaleratzeko materiala biltzen ibili ziren, eta kontzertuaren soinua ere mahaitik grabatu zuten.

Des-Kontrolkoen atzetik, Special Crewkoak aritu ziren — Des-Kontrolko hiru kide. Amaitzeko, berriro ere Des-Kontrolkoak igo ziren taula gainera. Grabatu berri dituzten hiru abesti ere jo zituzten. Ondo, baina hobeto ere egin dezakete.



GIRO ONA Aurreko ilaretako entzuleak dantzan ibili ziren Des-Kontrolen doinuekin.

JOSETXO ARANTZABAL



Atzealdean, Jaime Lizaranzu eta Aitor Barbadillo; aurrean, Ibai Moneo eta Oier Artzamendi. Euren grabatu zuten *Arranca el coche* diskoa.

GOIENKARIA

"Abesti berriak sortzen ari gara, eta oso lanpetuta gaude"

Arrasateko Los Cretinos taldeak diskoa dauka kalean, *Arranca el coche*; baina berri baterako abestiak sortzen dabilta orain

Jaimek, Aitorrek eta Alexisek rock-and-rollera egiten dute: 60ko urteetara eramaten duen musika, ondo pasatzeko egindako abestiak

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

Arrasateko Los Cretinos taldeak lehenengo diskoa kalean dauka: *Arranca el coche*. Rock-and-rollera egiten dute gazte hauek, eta eurekin elkartu gara, grabazioa gogoratu eta etorkizunari begira dituzten planei buruz berba egiteko.

Orain atera duzue diskoa, baina taldeak baditu urte batzuk.

Bai: 2002ko abuztuan sortu genuen Los Cretinos taldea. Gaur egun, hiru gara: Aitor baterian, Alexis baxuan eta Jaime, gitarra jo eta abesten. Azken etorritako baxu jolea oñatiarra bada ere, Los Cretinos taldea arrasatearra da.

Zeuen buruari kretino, inozo, deitzen. Zuen buruaren hain iritzi txarra duzue?

Los Cretinos izena Los Ramones taldearen eragin zuzena da: asko gustatzen zaigun taldea da, eta abesti askotan aipatzen dute *kretino* hitza. Horregatik erabaki genuen jartzea.

Arranca el coche diskoa ipini, playeman, eta zer entzuten da?

Zortzi abestik osatzen dute diskoa eta rock-and-rollera eta gara-je punka egiten dugu.

Los Ramones taldeak izenean eragina eduki zuen bezala, musika talde asko gustatzen zaizkigu, eta guztien eragina dauka gure musikak. Beldurrezko filmak, neskak eta parrandak dira abestietako letrak idazteko garaian kontuan hartzen ditugun gaiak. Lantzeko gai errazak dira horiek.

Grabazioa nola joan zen?

Errenterian grabatu genuen. Traba nagusia bi herrien artekoa izan da: egunero Arrasatetik Errenteriara joatea kosta egiten da. Diseinuarekin ere arazoak eduki ditugu: gauza batengatik edo bestearengatik, atzerapenak egon dira. Baina, orduko arazok ahaztuta, oso pozik gaude diskoa nola geratu den ikusita.

Pa pa-o-mew mew mew!

60ko hamarkadako taldeek asko sartzen zituzten horrelako letrak. Guri betidanik gustatu izan zaizkigu horrelako abestiak. Beraz, izenarekin gertatu zen bezala, letra ere abestietan sartzea erabaki genuen.

Aste Santuan, Londresen egon zarete kontzertuak ematen. Nolako izan da esperientzia?

Harrera oso ona eduki genuen, espero genuen baino onagoa. Euskaldunekin ere topo egin dugu, gainera. Oñatiarrak ere bazeuden bertan, eta poztu ginen ikusteaz. Baina ingelesek ere oso gustuko dute gure musika. Gustatu, eta musika estiloa bultzatzeko gogoarekin geratu dira. Oraingoan, hemen geratuko gara kontzertuak ematen, baina Lon-



Eguna alaitzeko beharra duzunerako

Umore onean ez zaudenean, hartu Los Cretinos taldearen *Arranca el coche* diskoa eta eman playteklari. Rock-and-rollera egiten du talde arrasatearrak. Umore onean jartzen zaituena, gainera.

Erraz entzuten dira diskoa eratzten duten zortzi abestiak. Erraz entzun, eta, gainera, dibertigarria da diskoa. Euren bizipenak kontatzen dituzte letretan.

Erritmo azkarreko musika da mutil hauek egiten dutena, eta dantzarako oso egokia.

Edurne Burgaña

dresera bueltatzeko asmoa daukagu.

Handik bueltan, zer egiten ari zarete?

Abesti berriak sortzen gabiltza, eta horrekin lanpetuta gabiltza. Oñati aldean eta, baditugu kontzertuak, baina buru-belarri gabiltza sortze lanetan. Disko berria laster egiteko gogoia daukagu.

Jaime, taldeko abeslaria, Jim TNT bezala ere aritzen zara, eta barikuan Durangoko Plate-ruenean joko duzue...

Eta musikari oso ona den baten telonero lanetan, gainera: Howe Gelb ariko da bertan. Danbaka lehiaketako sarietako bat da bertan aritzea. Interneten entzuten egon naiz bere musika, eta musikari oso ona da. Estilo berezia dauka, gainera, eta gogoa-arekin nago Durangoko kontzerturako.

Los Cretinosekin bueltan, kretino bila zabiltzate...

Teklatua jotzen duen norbait behar dugu. Kretinoia izateko, gainera, berdina da neska edo mutila izatea; beraz, nahi duenak jo dezala guregana.

gazte zerbitzuak

BEKAK

> **Graduondoko Ikasketak.** Rafael del Pino Fundazioa. Espainian eta atzerri graduondoko ikasketak egiteko beka lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako. Epea: maiatzaren 4a.

> **Ipar-Hego programa.** Zarazuko Udala. GKEkin lankidetzeta-programak antolatzen eta garatzeko ezarritako diru-laguntzak, garapen bidean dauden herrialdeetako biztanleen baldintza sozioekonomikoak garatzera eta hobetzera bideratutako jarduerak egiteko. Epea: maiatzaren 30a.

IKASTAROKAK

> **Gazteen Ekimenen Sustatzailea.** EDE Fundazioa. Gizarte arloko prestakuntza duten langabeentzat. Asteleheneretik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Tokia: Bilbo. Epea: maiatzak 1.

LEHIAKETAK

> **Graffiti.** Debagoieneko Mankomunitatea. Mundumira 2007, Munduko Kulturaren eta Musiken III. Jaialdiak Graffiti lehiaketa antolatu du. Graffiti gaia: Bost kontinenteak. Epea: maiatzak 21.

> **XVI. Pop-Rock. Donostiako Udala.** KTE. Donostia hiriko XVI. Pop-Rock lehiaketa Epea: maiatzaren 11.

LANA

> **Begiraleak.** Txatxilipurdi Elkarte. Udako kanpamenduetarako begiraleak behar ditu. Baldintzak: 18 urte baino gehiago, begirale ikastaroa eta euskera menperatzea. Epea: maiatzaren 4a.

> **Begiraleak.** Kiriketaren Elkarte. Uztailaren Donostian, Urnietan eta Andoainen lan egiteko. Interesa duenak goizez 943 45 33 34 telefonora deitu behar du. Epea: maiatzak 31.

EKINTZAK

> **Euskal Udalekuak 2007.** 7tik 17 urtera arteko gazteentzat euskarazko udalekuak: Abaigar, Bernedo eta Goñin. Plazak mugatuak dira.

> **Auzolandegiak 2007.** Eusko Jaur-larritza. Izena emateko epea apirilaren 19an, goizeko 9etan, zabalduko da. Informazio gehiago: www.gazteaukera.net.



ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulgoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzu@euskalnet.net

ONATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazio@oinati.net

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Adosatua salgai. Estreinatzeke. 607 79 00 37.

Aramaio. Bi familiarendako etxe osoa salgai. Berritua. Herritik gertu. Lorategia eta baratzea. Bi familien telefonoak, honakoak. 685 71 35 65 edo 618 83 77 49.

Arrasate. Arimazubir etxea salgai. Egoera onean dago. Bi logela, egongela, komuna, sukaldia eta ganbara. Kanpoaldera begira dago. 657 77 81 87.

Arrasate. Etxea salgai Grupo San Juanen. 60 m², eguzkitsua, ganbararekin eta sotoarekin. 606 25 92 80.

Arrasate. Etxebizitza salgai Uribe auzoan. Lau logela, egongela, sukaldia eta bi komun. Garaiea aukeran. 625 28 72 06.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 m². Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainu-gela eta sukaldia. Kanpoaldera begira. Igoailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

Arrasate. Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldia, trasteleku eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

Bergara. Apartamentua salgai Zubietan. Eguzkitsua. Telefonoa: 656 78 06 95.

Bergara. Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Bizitzatara sartzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubiaurren. Guztiz berritua. Berogailua eta ganbara. Deitu 619 41 39 72 telefonora.

Bergara. Zabaltegin. 50 metro karatu dituz eta 14 metro karatuko trasteleku. Erabat berritua. 635 72 67 11.

Bergara. Simon Arrietan etxebizitza salgai. 80 metro koadro. Dena kanpo alder. Egoera onean. 652 76 86 68.

Elgeta. Etxebizitza salgai, bigarren solairuan. Igoailua, 3 gela, sukaldia, komuna, egongela eta ganbara. 138.232 euro (23.000.000 pezeta). 645 71 76 25.

Elgeta. Etxebizitza salgai. 4 urtekoa. 3 logela, 2 bainu-gela, egongela, sukaldia eta garaje-trasteleku. 655 45 07 26.

Miarritzen 90 metroko apartamentua salgai. 3 logela, komuna, bainua, dutxa, sukaldia, bi balkoi eta egongela handia. Hondartzatik 10 minutura oinez. 646 69 47 99.

Soraluze. Apartamentua salgai. 30 m². Logela bat, egongela, sukaldia eta komuna. 80.000 euro. 943 79 21 18

Mutriku. Bista ederrak. 70 metro koadro. Bi logela. Berrituta dago. Bizitzatara sartzeko moduan (Belen). 676 38 07 83 edo 676 38 07 83.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorenzo auzoan. Saloi-sukaldia eta bi logela. Eguzkitsua, terraza handiarekin. Garaiea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Aurten eraikiko den etxe berri baten duplexa salgai. 110 m². Lau logela, egongela, bi komun eta garaiea. 670 85 85 41.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com
<http://www.goiena.net/sailkatuak>

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEN GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ). GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERGARA

Sukaldaria edo sukaldari laguntzailea behar da Hamaika tabernan.
669 36 65 79
943 03 45 85

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje itxia salgai San Lorentzen. Deitu telefono honetara: 943 76 40 05.

Bergara. Garaje itxia salgai Zubiaurren. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaiea errentan ematen da Uarkapen. Deitu telefono honetara: 605 77 52 75.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Bergara. Lokala errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 660 43 71 94.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Debagoiena. Neska bat gertu umeak zaintzeko, taberna edo jatetxeetan lan egiteko edo garbiketarako. Deitu telefono honetara: 636 11 23 40.

Elgeta. Pertsona euskalduna behar da arratsalde (18:30-20:30) hamar hilabeteko umea zaintzeko. Deitu telefono honetara: 633838532.

Oñati. Emakume euskalduna behar da arratsalde batzuetan bi ume zaintzeko eta astean behin etxeko lanak egiteko. 638 37 91 89.

402. ESKAERAK

Debagoiena. Neska bat gertu umeak zaintzeko, taberna edo jatetxeetan lan egiteko edo garbiketarako. Deitu telefono honetara: 636 11 23 40.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu edozein lanetarako. Deitu telefono honetara: 659 82 75 18.

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaindu, tabernak garbitu edota etxeko lanak egiteko. 943 77 16 73.

Bergara. Eskarmentua duen emakumea gertu etxeko lanak egiteko eta umeak edo adinekoak zaintzeko. Cristina Lisette. Deitu telefono honetara: 666 67 84 21.

Bergara. Jostuna lanerako gertu: beheak konpontzen ditu, kremailerak, jantziak txikitu eta bestelako lanak egiten ditu. 699 34 86 88.

Debagoiena. Emakume gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta bestelako lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 659 37 41 95.

Debagoiena. Emakume gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta bestelako lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 662 26 67 25.

Debagoiena. Emakumea gertu arratsalde lan egiteko. Erika. 636 31 15 36.

Debagoiena. Gizezkoa eskaintzen da edozein lanetarako. 943 71 21 13 edo 676 23 41 13.

Debagoiena. Mutil bat eskaintzen da ostalaritza lanak, garbiketa lanak edo eraikuntza lanak egiteko. 648 10 26 53.

Debagoiena. Mutil gazteak lan egingo luke peoi, garbiketa konputan edo fresatzaile. 647 19 36 95.

Debagoiena. Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 943 79 76 88 edo 666 21 88 95.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko edo garbiketarako. 646 75 08 07.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketarako. Deitu telefono honetara: 662 26 67 25.

Debagoiena. Neska bat gertu pertsona nagusiak zaintzeko, sukaldari laguntzaile edota zerbitzari moduan lan egiteko edo garbiketarako. Deitu telefono honetara: 663 46 93 60.

Debagoiena. Neska bat gertu umeak zaintzeko, taberna edo jatetxeetan lan egiteko edo garbiketarako. 648 10 26 53.

Debagoiena. Garbiketa lanak egingo nituzke orduka zein jardun osoz. 618935929.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. DBH2ko ikasle batek eskola partikularrik jasoko lituzke, ahal bezain laster. 943 79 89 96.

Bergara. First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru bider ingeles eskolak eman diezazkidan. Deitu telefono honetara: 615 79 41 02.

Bergara. First titulua duen irakaslea behar dut astean hiru orduz eskolak eman diezazkidan. 943 03 73 39.

DBH2. 2. mailako eskolak jasotzeko irakasle partikularra behar dut. Ikasturte osorako. Deitu telefono honetara: 652 76 21 63.

502. EMAN

Arrasate. Behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolako emango nizkieke. Arratsalde deitu. 645 73 04 69.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Alfa Romeo 156 SW. Gasolinazkoa. 2004koa. 48.000 km. 645 00 99 35.

Audi A3 Sportback salgai, egoera ezin hobean. Urte eta bost hilabete eta 32.000 km. Estra ugari: Sline paketea, Tempomat, 17 hazbeteko hagunak eta bixenon argiak. Prezio negoziagarria. 635 73 72 07.

Autokarabana salgai. 1994. urtekoa. Eguzki-energiarako plaka dauka. Egoera oso onean. 18.000 euro. 663 69 31 44.

Ford Fiesta salgai. 1.25 eta 75 ZP. 90.000 km. 9 urte. Deitu telefono honetara: 609 31 29 63.

Jeep Cherokee. 2.1 Td Limited. Margotu berria. Oso egoera onean. Saltzen dugu ez dugulako erabiltzen. 4.500 euro. Arratsalde deitu. Deitu telefono honetara: 655 45 07 25.

Peugeot 106 diesela. Bost ate. 140.000 km. Oso ondo dago. (Jon). 669 17 01 72.

Renault Express. Diesela. 300 euro. Arratsalde deitu. 655 45 07 25.

Seat Alhambra Sport monobolumena salgai. Egoera onean. 653 71 04 56.

Suzuki GS500E motorra salgai. 25.000 km eta egoera oso ona. 1.800 euro. 669 97 93 48.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Zazpibakurkume salgai. Setterrak dira. 943 78 70 64 edo 652 71 61 99.

703. EMAN

Katakumeak. Hiru katakume

eta haien ama oparitzen dituz. Zuri-zuriak dira katakumeak. 649 57 70 59.

Katakumeak oparitzen dituz. 943 79 43 31.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autorako DVDa eta pantaila salgai. 656702312.

Emaztegai soinekoa saltzen da, estreinatua barik. 652 75 54 46.

Jaunartzea egiteko almirante jantzia saltzen dugu, 10 neurria. 150 euro. 943 77 16 73.

Kanpin denda-karroa. Raclat Minto. 2002koa. Oso erraza muntatzeko eta gutxitan erabiltza. 1.300 euro. Deitu telefono honetara: 617 28 08 86.

Karabana. Burstner markakoa, 435 TS. 2006koa. OÁfflatin. Presazkoa da. Deitu telefono honetara: 695 71 88 85.

Karabana saltzen da. Sun Roller, 2005. urtekoa. Estrak ditu. Deitu telefono honetara: 943 76 70 81.

Parapentea. Edel Quantum markakoa; M neurria du. Deitu telefono honetara: 606 15 54 62.

Philips telebista panoramikoa salgai. 32 hazbetekoa, egoera onean. Deitu telefono honetara: 607 45 54 84.

Trialeko bizikleta. Monty 221 Ti. 2004koa. Egoera onean. Lehen 1.300 euro, orain 550 euro. Markel. Deitu telefono honetara: 943 79 41 88.

Txakurrantzako erremolkeak saltzen da. Oso egoera onean. Jon. Deitu telefono honetara: 61872 68 34.

Ume-kotxea. Bikiendako ume-kotxe tolesgarria, McLaren Twin Traveller. Udarako, aukiondako bi estalki eta negurako bina Red Castle forru polar eta zaku, eguzkitakoarekin. Deitu telefono honetara: 676832562.

Windsurf ekipamendua 6,6 m²-ko hiru bela, Gaastra Echo motakoak. 6 m²-ko Arrow Air motako bela bat eta 5,2 m²-ko Tri-board bela. Gainera, bi mastak 460 cm eta 400 cm-koak, eta ezepeleta (botavara). Dena 499 euro. Deitu eta ikusi. Mikel. 677 78 31 56.

802. EROSI

Bankuko billete eta txapon zaharrik erositako nituzke. Deitu telefono honetara: 688 61 85 02.

806. GALDU

Bergara. Mayc lantegiaren inguruan zilarrezko pultsera bat galdu nuen martitzenean, apirilak 17. Deitu telefono honetara: 615 78 49 64.

807. AURKITU

Patinetea. Bergaran Patinete bat aurkitu nuen martxoaren 16an Mariaren Lagundia ikatzearen ondo-ondoan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren autobusaren ondoan. 615 75 18 45 edo 943 76 16 19.

Apirilak 30a:
127. zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, apirilak 30, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak! Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun bazara, adi:

Zeuren izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

Saridunak

128. zozketako saria

Harpidedun ez bazara...

BI KAMISETA.
- Xabier Albizu Peñas (Bergara)
- Jesus Mari Aranguren Gallastegi (Arrasate)

Lau sarrera Elgetako ESPALOIAN maiatzaren 11n izango den Lapurzulo antzerkirako.
Bakoitzari bi emango zaizkio.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:

35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

astea GOITBn

Astelehena, 30

Martitzena, 1

Eguaztena, 2

Eguena, 3

Egubakoitza, 4



> Nafarroako Bertsolari Txapelketa 12:30

Nafarroako Bertsolari Txapelketa finala izango da ikusgai Goiena Telebistan, bai gaur, 12:30ean, eta baita bihar ere, 22:00etan.

08:00 Emisio hasiera
08:05 Marrakzi bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron.
11:00 Ikusmira.
11:30 Kirolari.
12:15 Bizitegia.
12:30 Nafarroako bertsolari txapelketaren finala.
15:00 Futbola: Aloña-UDA.
17:00 Marrakzi bizidunak.
19:00 Hasiberriak.
19:30 Klip@k.
20:00 Ikusten.
20:30 Erreportajea.
21:00 Berbaire.
21:30 Ikusten.
22:00 Musikantoi.
22:30 5+5.
23:00 Ikusmira.
23:30 Musikantoi.
00:00 Emisio amaiera.



> Marrakzi bizidunak etxeko txikientzat 08:05, 15:30

GOITBk marrakzi bizidunen hiru saio eskainiko ditu gaur etxeko haurrentzat. *Calimero*, *Boboak* eta *Trikitraka trikitron* izango dira.

08:00 Emisio hasiera.
08:05 Marrakzi bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron.
11:00 Didjeridu.
11:30 Ilunpean.
12:00 Musikantoi.
12:30 Klip@k.
13:00 Kirolari.
13:30 Erreportajea.
14:00 Didjeridu.
14:30 Ilunpean.
15:00 Ikusmira.
15:30 Marrakzi bizidunak.
18:00 Kirolari.
18:30 Ikusten.
19:00 Hasiberriak.
19:30 Eltze beroa.
20:00 Ur eta lur
20:30 Erreportajea.
21:00 Kirolari.
22:00 Nafarroako bertsolari txapelketa.
00:30 Emisio amaiera



> Gernikako bonbardaketari buruzko saioa 21:15

Aurten, hogeita hamar urte bete dira hegazkin alemaniarrek Gernika bonbardatu zutela. GOITBk horri buruzko saioa eskainiko du.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrakzi bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Ur eta lur
15:45 Gaurkoak.
15:47 Hasiberriak.
16:15 Eltze beroa.
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Harmailatik.
18:15 Eltze beroa.
18:45 Albisteak.
19:15 Teknopolis.
19:45 Berriak.
20:15 Marrakzi bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Bertso saioa.
22:15 Telesaila.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ur eta lur.
00:15 Emisio amaiera



> 'Didjeridu', gazteentzako programa 22:15

Didjeridu izeneko saioan, gazteen-entzako informazio interesgarria eskaintzen zaigu. Bideoak, elkarrizketak, Internet... denetarik ikusgai.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrakzi bizidunak: Boboboak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Bertso saioa.
14:15 Erreportajea.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Eltze beroa.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Telesaila.
16:15 Ikusmira
16:45 Albisteak.
17:15 Boboboak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Eltze beroa .
18:15 Teknopolis.
18:45 Albisteak.
19:15 Klika.
19:45 Berriak.
20:15 Marrakzi bizidunak: Boboboak.
20:45 Berriak.
21:15 Berbaire.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Musikantoi
22:15 Didjeridu.
22:45 Berriak.
23:15 Erreportajea.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera.



> 'Eltze beroa' saioan, plater goxoak ditugu 16:15

Goizmendi Telebistak ekoiztutako programa honean, sukaldaritzan aritzeko proposamen goxoak egingo dizkigute gaurkoan ere.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrakzi bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Berbaire.
14:15 Musikantoi.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Hitz bitan.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Didjeridu.
16:15 Eltze beroa
16:45 Albisteak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Bertso saioa.
18:15 Erreportajea.
18:45 Albisteak.
19:15 Erreportajea .
19:45 Berriak.
20:15 Marrakzi bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Ikusten.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
22:45 Gaurkoak.
23:30 kirolari.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Elkartasun Udarako proposamenak 10:00

Gaur, astelehena, Arrasateko Gazte Informazio Zerbitzuko Dorleta Kortazarren eskutik, Elkartasun Uda programako eskaintza entzungo dugu: auzolandegiak, lan brigadak, elkartasun bidaiak, GKEekin boluntarioratza...

Astelehena eta martitzena

10:00 Elkarrizketa bilduma

Eguaztenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Elkarteen geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia
14:00 Igo autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
17:15 Zorion agurren tartea (errepikapena)


Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu

gertutik



Anjel Alkain Aktorea

"Mundu osoan behar da umorea; Euskal Herrian, batez ere"

AMAIA ZALDUA > BERGARA

Anjel Alkain Andoainan jaio zen, 1966an. Donostiako Antzerki Eskolan egin zituen ikasketak, eta, gero, Hankagorri taldearekin antzeztzen hasi zen. ETB1eko *Sorginen Laratza* saioan ezagutu genuen, eta, gaur egun, *Wazemank* saio arrakastatsuko kide da.

Nola definituko zenuke zure burua?

Jakingo banu... Igual ez dut jakin nahi. Argi daukat, behintzat, umorerik gabe bizi nahi ez duen pertsona bat naizela.

Zer nola erabaki zenuen aktore izatea?

Oraindik ez dut erabaki, ez dut gehiegi pentsatu. Gehiegi pentsatu izango. Lanbide honetan, ezin da jakin non bukatuko duzun. Nik, adibidez, denetarik egin dut, eta horri esker iritsi naiz egungo egoerara.

Umorea egin duzu, gehienbat. Euskal Herrian, behar da?

Niri erakargarriena umorea egiten zait, jendeari barre eginaraztea gustatzen zait, eta badut horretarako gaitasuna. Nire iritziz, mundu osoan behar da umorea, eta Euskal Herrian, batez ere.

Zein da imitatzailearen teknika?

Ez da teknika, dohaina da. Gakoa adi egotea da, eta ikusitakoa imitatzeke erraztasuna izatea. Ez da ikasten, bertsolari ona izaten ikasten ez den bezala. Nik, inkontzienteki, antena piztuta daramat, eta gero, ikusitakoa errepikatzen dut.

Zer asmo dituzu, gerora begira?

Orain, oraingoa, eta nahikoa lan! *Wazemank* ekainean amaitzen da, baina guk ez dugu ideia faltarik. Antzerkian zein telebistan lan egiteko gertu gaude.

Zer ez zenuke inoiz egingo?

Ezin da esan. Beharbada, hemendik urte batzuetara egingo dut orain egingo ez nukeena. Hala ere, ez nuke gauza negatiborik egingo; ni positiboa naiz eta, kritika egin arren, umorearen aldetik joko nuke. Iruditzen zait umore kritikoa eragin handiagoa duela amorratiozko adierazpenek baino.

asteko hitzorduak

Antzerkia



ARRASATE

> Eguaztenez, 'Titirikontu-kontari' antzezlana izango da Amaia Antzokian

Gorakada Antzerki Taldeak 14:45ean eskainiko du txotxongilo ikuskizuna. Hainbat ipuin kontalariren ahotsak elkarrekin dira bertan. Pertsonaiak ugariak eta dibertigarriak dira: Txinako enperadore bat egongo da, esaterako.

Kontzertua



BERGARA

> DJ festa antolatu dute Elektronische eta Kogollo Party Krew-k

Datorren zapatuan, maiatzak 5, dantzarako musika jaialdia egongo da Jam aretoan, gauerdian hasita. Gonbidatu nagusiak hiru DJ aleman dira: Kiki (Berlin), argazkian, LoSoul (Kassel) eta Bine (Kassel). Sarrera eta edaria 15 euro izango dira.

Bertsolaritza



ANTZUOLA

> Barikuan, bertso-kabareta ikusteko beta izango da Antzuolako gaztetxean

Emetik bertso-kabareta eskaintzen dute Oihane Perea, Iratxe Ibarra eta Onintza Enbeita bertsolariek, eta gai librean aritzen dira bertsotan. Antzuolako Udaleko Kultura batzordearen eskutik, 20:00etan hasiko da emanaldia.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

Mahaian bat
gehiago
izango gara

Jai giroa nabari da gure herri eta auzoetan. Udaberriarekin batera hasi dira jaiak ospatzen. Aste bukaeran, San Prudentzio santuaren omenez, **Elorregi** auzoan eta Arrasateko **San Andres** auzoan musika eta algarra izan dira nagusi.

Arrasaten, gainera, maiatzaren leko zubia aprobetxatuz, lau egunetako jai egitaraua prestatu dute. Ia-ia, San Ferminetan baino gehiago! *Giriak* bakarrik falta dira... Zapatu gauean Gudarien plazan, **Kaixok** girotu zuen dantzaldian, Arrasateko neska

"Oñatiko Portu
tabernan Raul Lasa
izan zen; Jim TNT
eta Gosekoak egon
ziren entzuten"

koadrila batek oholza gainera igotzea erabaki zuen. Itxura denez, baina, ez zuten ondo egin, eta akademiatik bota egin zituzten. Beste batean izan beharko du!

Giro politoan eta lagunartea ibili zena **Raul Lasa** arrasatearra izan zen. Oñatiko **Portu** tabernan eman zuen kontzertua Arrasateko gazteak, lagunez inguratuta. Han izan ziren **Jim TNT** eta **Goseko** lagunak, besteak beste.

Jai larregi datozela uste dut; orain, **Letizia** printzesak ekarri digun oparia dela eta, aurreratzea komeni da. Izan ere, zenbat dira dagoeneko? Beste zer ez dakit, baina umeak mundura ekarri, erruz egiten dute hauek. San Migel Txikitari kalimotxo bat gutxiago edatea egokituko zait *Froilan* guztien ahoak asetzeko.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxumutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

asteburuko albuma



Bazkaria gaztetxean. Arrasateko Gazte Batzarrak deituta, bazkaritarako elkartu ziren hainbat lagun, zapatuan, gaztetxean. Gaztetxearen urteurrena ospatzea aitzakiatzat hartuta, eurek jatekoak gertatu eta lagun giroan bazkaldu zuten Gazte Batzarreko kide batzuek eta beste zenbait gaztek. Hamaseigarren urtemugako ospakizunak zapatuko bazkariarekin amaitu zituzten gazteek.



Corazon de Encinakoak, entseguan. Arrasateko Corazon de Encina elkartekoen, maiatzaren 5etik 13ra bitartean, Extremadurako astea ospatuko dute. Lehiaketak, hitzaldiak, kantua, dantza eta gastronomia uztartuko dira. Asteburuan hasi ziren mahai jokoetako kanporaketak, eta, elkartean, datorren asteako emanaldirako gertatzen ere badabilta, kantuan eta gitarrarekin.



San Andres, jaietan. Arrasateko San Andres auzoan, jaietan dira. Asteburuan, ekitaldirik ez da falta izan eta, bertakoek esan digutenez, giro polita izan da auzoan. Txikienak ibili omen dira gusturen, batik bat, gaztelu puzgarri, *kars* eta txokolate-jatearekin. Gaueko dantzaldietan, ordea, inor gutxi animatu da plazara dantzara. Gaur, astelehena, Joselu Anaiak arduratuko dira dantzaldia girotzea, eta maiatzaren 1ean ere izango da ekintzarik. Txikiek, esaterako, Betizuen ikuskizunarekin gozatzeko aukera edukiko dute.



San Prudentzio jaiak Elorregin. Bergarako Elorregi auzoan, jaietan izan dira asteburuan. Egubakoitzean, makala altxatu eta mus txapelketa izan zen, eta Abuelo eta Sanpru izan ziren irabazle. Zapatuko bertso bazkarian, lepo bete zen elkartea. Amuriza eta Peñagarikano bertsolariak eta trikitalariak girotu zuten bazkalostea, eta izan zen afaritara geratu zenik ere. Domekan, Moises Azpiazu taldeko dantzarien erakustaldiak, pilota partiduak eta hamaiketakoak itxi zituzten giro ederrean ospatutako jaiak.



1927koen bazkaria Oñatin. 80 urte beteak, batzuek, eta betetzeko, besteek, baina oraindik jaiatzeko gertu. 1927an jaiotako 50 andre eta gizon oñatiar elkartu ziren zapatuan. Bidaurretan meza entzun eta Etxeberria jatetxean bapo bazkaldu ostean, kontu kontari eta kantuan ibili ziren lagun giroan. Bost urtetik behin elkartzen dira kintoak, baina egon zen sariago elkartzeko proposamena egin zuenik ere. Oraindik sasoiko dauden eta eguna primeran pasa zuten seinale.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €**.

GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.



zorion agurrak



ARAMAIO
Bittor Arana
Apirilaren 25ean, 11 urteak. Zorionak, etxeko guztion partetik!




ESKORIATZA
Ander Zubia
Apirilaren 27an, 11 urte! Zorionak, Ander, etxeko partetik! Ondo pasauko zeben eguna, ezta?




ESKORIATZA
Itsaso Eraña
Apirilaren 27an, 13 urte. Zorionak, etxeko partetik!



ESKORIATZA
Aritz Urtzelai
Apirilaren 28an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



ARRASATE
Nerea Atxa
Apirilaren 29an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik!



ESKORIATZA
Pablo Berezibar
Arevalo
Apirilaren 29an, 5 urte. Zorionak, Malen, Martin eta Naroaren partetik!



ARAMAIO
Uxue Arana
Apirilaren 29an, urtebete. Zorionak! Ahizpa Amaiur, aiti-te, amama eta birramama.



ARETXABALETA
Markel Pando
Egurza
Apirilaren 29an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Gurasoak eta Kaiet anaia.



BERGARA
Aratz Arenaza
Apirilaren 30ean 2 urte betetzem ditu. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



OÑATI
Hasier Olaeta
Apirilaren 30ean, 4 urte. Zorionak, *txikitto!* Gurasoen, Haritzen eta Maddiren patxorik gozoena gure mutil-handirentzat.



ARRASATE
Ekai Manjon
Apirilaren 30ean, 5 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi Txikiko lagun partetik!



BERGARA
Nahia Loidi
Apirilaren 30ean, 3 urte betetzen ditu. Zorionak, etxeko partetik!



BERGARA
Martin Aspiazu
Maiatzaren 1ean, 10 urte betetzen ditu. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik!



BERGARA
Endika Ibaibarriaga
Maiatzaren 2an, 3 urte betetzen ditu. Zorionak! Etxekoak, bereziki Ziortza, Iker eta Josu.



OÑATI
Maria Sanchez
Zabarte
Maiatzaren 2an, urte bat. Zorionak eta muxu asko, Eñaut eta etxeko partetik! Ondo pasa eguna, potxola!



ESKORIATZA
Unai Beloki
Maiatzaren 2an, 7 urte. Zorionak, etxeko partetik, eta ondo pasa eguna!



ESKORIATZA
Eider Elortza
Agiriano
Maiatzaren 2an, 9 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!




ARAMAIO
Aitor Arana
Maiatzaren 2an, 32 urte. Zorionak, emazte Aizpearen, Amaiur eta Uxue alaben eta etxeko denon partetik!




ARETXABALETA
Julen Saiz de Azkunaga
Maiatzaren 3an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, lagun partetik! Iñaki, Ane, Josune, Andoni eta Yago.



ARRASATE
Iker Zubia
Maiatzaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, *Peri*, eta urte askotarako, koadrilakuen partetik!




BERGARA
Gorka Ibarra Guridi
Maiatzaren 6an, urtebetetzea. Zorionak, potxolo! Etxeko partetik, bereziki Jone.



ARRASATE
Danel Arrillaga
Maiatzaren 7an, 3 urte. Zorionak, familiako guztien partetik!



ESKORIATZA
Joxe Elortza Lasa
Maiatzaren 9an, 43 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!



jaiotakoak



Ainhoa Martin Roitegi
Eskoriatza > 3,320 kilo. Apirilaren 23an. Gurasoak: Jasone (Eskoriatza) eta Mikel (Eskoriatza). Argazkian, Ainhoa amaren besoetan agertzen da.



Nerea Elduaie Azula
Arrasate > 2,940 kilo. Apirilaren 25ean. Gurasoak: Itziar (Arrasate) eta Jabier (Arrasate). Argazkian, Nerea txikia gurasoekin agertzen da.



Maria Zelaia Lazkano
Oñati > 3,780 kilo. Apirilaren 25ean. Gurasoak: Goiuri (Oñati) eta Gorka (Oñati). Argazkian, Maria jaioberria, kumatxoan lo.



Leire Barquero Oñati
Eskoriatza > 3,940 kilo. Apirilaren 25ean. Gurasoak: Elena (Arrasate) eta Pako (Arrasate). Argazkian, umea osaba Bitorren besoetan.



Ander Sanchez Martinez
Soraluze > 2,600 kilo. Apirilaren 25ean. Gurasoak: Montse (Soraluze) eta Diego (Bergara). Argazkian, Ander jaioberria, bapo lo.



Alazne Picuasi Tuquerres
Bergara > 2,960 kilo. Apirilaren 26an. Gurasoak: Ana Lucia (Ekuador) eta Luis (Ekuador). Argazkian, Alazne jaioberria, aitaren besoetan.



Aitor Dacosta Garcia
Bergara > 3,910 kilo. Apirilaren 27an. Gurasoak: Eva (Bergara) eta Raul (Bergara). Argazkian, Aitor jaioberria, izeba Olgaren besoetan.



Amaia Largo Ibarro
Oñati > 3,730 kilo. Apirilaren 27an. Gurasoak: Asun (Oñati) eta Jose Ignacio (Zumarraga). Argazkian, Amaia jaioberria, kumatxoan lo.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Jose Mari Gorrotxategi > Gozogilea

"Goizero hartzen dut txokolatea oraindik"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Jose Mari Gorrotxategi Tolosakoa da berez, baina, bere gozoei esker, Euskal Herritik kanpo ere ezagutzen dute. Oñatin eta Arrasaten ere saltzen dituzte xaxuak. Berak ere ondo ezagutzen ditu bi herri horiek.

Oñatin ikasi duzu txokolatea egiten?

Asko daki Oñatik txokolateari buruz, bai. Jakin du denboran aurrera egiten, teknologiak egin duen bezala. Gure aitak Oñatin ikasi zuen txokolatea egiten. Lagun asko egin zituen herri horretan. Horietako batek estankoa zuen, eta loteria erosten zion beti. Inoiz ez zitzaigun ezer tokatu, baina nik ere loteria erosten dut oraindik Oñatira noan bakoitzean, badaezpada.

Aita gozogilea izanda, zu ere gozogilea izan behar?

Lau anaia-arrebetatik zaharrena naiz eta, 14 urte nituenean, aitak esan zidan eskola uzteko eta lanean hasteko. Orduan, oso gazte gutxi jarraitzen zuen ikasten. Hala ere, 10 urte nituenean hasi nintzen gozoak sal-

tzen, zapatu goizetan; gozotegian egiten nituen eskolako orduak.

Jolas egiteko denborarik izaten zenuen?

Trapu zaharrekin egindako baloiarekin ibiltzen ginen futbole. Pilotan ere egiten genuen, eta baita kaniketetan ere.

Zure ilobek zertan jolasten dute orain?

Bat judoan dabil, besteak gitarra jotzen du... erabat desberdinak dira oraingo umeak eta lehenengoak. Denbora asko pasa da.

TEST-A

Herria: Tolosakoa naiz, baina orain Donostian bizi naiz. **Adina:** 78 urte.

Ikasketak: Gozogile eta txokolate egile. **Zaletasunak:** Argazkilaritza, etnografia eta bidaiatzea.

Argazki politenak: Jendearen aurrepigenak; batez ere, zer sentitzen duten erakusten badute. **Bilobak:** Bederatzi ditut. Oso azkarrak dira, neskak, batez ere.

Espaniako Gerra: Zazpi urte nituen, eta ez nuen ondo ulertzen gertatzen ari zena.

Egin duzu inoiz Tolosako baba-rrun zaporeko postrerrik?

Camilo Jose Cela idazleari egin nion behin, Donostiako gastronomia jardunaldi batzuetan. Berari gustatu zitzaion, eta ideiak arrakasta izan zuen.

Inoiz erre zaizu tartaren bat edo ahaztu zaizu azukrea botatzea, adibidez?

Errusiar pastel handi bat enkargatu zidan behin familia batek. Deskuidatu egin nintzen zerbaitekin eta han ibili nintzen, itxura eman ezinda, baina inoiz jan zuten gozoena izan zela esan zidaten.

Oraindik egunero jaten duzu txokolatea?

Bai, sojadun esnearekin hartzen dut, goizero.

Artillero, dale fuego. Ezkontzen zaigula pastelero. Nolako izan zen zure ezkontza?

Nik egin nuen bazkariko tarta, eta justu-justu iritsi nintzen elizara. Oraindik ondo gogoratzen dut ezkontza gaua; orduko egoera ez zen gaurkoa modukoa.




GORROTXATEGI Donostian bizi da egun Jose Mari Gorrotxategi.

O.E.

www.goiena.net

Ondo iruditzen zaizu seme-alaba gatazkatien zaintza erakundeek har dezaten eskatzea?



biharamuna

Juan Kruz Mendizabal

Kukuaren kanta

Udaberria hasten zenean, aitarekin irtezen nintzen kukuaren bila. Herriatik gehiegi urundu gabe, Zubitxikiko basotoxo batean sartzea nahikoa izaten zen kukuaren kanta entzuteko.

Aspaldian ez dut kukuaren soinuua entzun, beharbada bi urtez Madrilen bizi izan naizela eta hiriko durrunda eta hotsetara sekula hurbildu ez delako. Baina, arrazoi nagusia hauxe da: kuku doinuua ez duzu entzungo zu bila ateratzen ez bazara.


Horrelako zerbait gertatzen zaigu bizitzako gauza inportanteenekin. Zain gaude grazia, alaitasuna eta bakea noiz etorriko, jabe-



tu gabe guk geuk atera behar dugula bila. Argi uzten digu Bibliako 33. salmoak, esaten duenean "bila bakea eta jarrai haren bidetik". Nola eskatu bakea haren bidetik bila jartzen ez bagara? Hauteskundeetarako hilabete falta zaigula, gure oinarritzko baloreen poltsikoak ondo prestatuta izan behar ditugu kukuak kantari harrapatzen gaituenerako.

Nola egongo dira gure poltsikoak diruz kukuaren kantua entzuten dugunean? Nola daude gure zorion, amets, bake asmo eta herri minaren poltsikoak? Ez dira ba hutsik egongo kukuak kantari atzematen gaituenean?

eguraldia



MINIMOA
+09

MAXIMOA
+16

Fronte batek euria ekarriko du. Haizeak ipar-mendebaldera egingo du, eta zakar ibiliko da. Temperaturak behera egingo du.

www.euskalmet.euskadi.net

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

WEBGUNEAN www.smsoinu.com

SOINUAK: Bidali, SOINUE hutsunea
ABESTIAK: Bidali, SOINUP hutsunea
LOGOAK: Bidali, SOINUL hutsunea
JOKOAK: Bidali, SOINUJ hutsunea

KODEA
KODEA
KODEA
KODEA

5767 zembakira
SMS bakoitzeko: **1,2 € + BEZa**

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarri (Lin Ton Taun) | **ASKATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minutero (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermín Muguruz) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Eus dican merda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | **BELAIR**
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itoiz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilargia (Ken 7) | **KEN**
Inpermuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**
Lau Teiltatu (Itoiz) | **ITOIZLAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loretxoa (EXKIKU) | **LORE**
Mareta Gora (Itoiz) | **MARETA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**
No time for love! (Hertzainak) | **NOTIME**

Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarri Sarri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen leizean (Exkoku) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txas (La Polla) | **TXUS**

Trikitixa
Bexamele ta pastela (Maixa ta biar) | **BEXAMELA**
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**
Hik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**
Kupela (Epede eta Larrañaga) | **KUPELA**
Mila galdere (Alaitz / Maider) | **MILAJ**
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | **TXANPON**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

SATANAS	EHZ	SORGIN4	AIZKORAK
TARTALO	IKURR3	I ORA	BABAK
BASAJAUN	IKURR5	LAUZ	ARRANAK

OHARRAK
1. BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonora bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatze, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guzietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
* Euskalmet deitu 900 84 02 00 telefonora. * Vodafone deitu 123-ra. * Movistar deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahit duzute, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.